


# Berriara

## Gorlako igoera

XXV. edizioa equakitzean

# OPEL



**TALLERES OLA**

Olabarren auzoa z/g.  
Tfnok: 76 33 44 / 45 / 46 / 47.  
BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN:  
**TAKOLO AUTOAK, S.L.**  
Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa).  
Tfnok: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK





**Oso ondo egin behar dira  
autoak, bost urterako bermea  
eman ahal izateko.**

"3+2 Excellent 5 urteko Bermea" programa berriari esker, Nissanek zure ibilgailuaren ohiko bermea 3 urtetik 5 urtera zabaltzeko aukera eskaintzen dizu orain.

Kosto urri baten truke, bost urtean zehar Nissanen bermeaz gozatu ahal izango duzu, baldin eta edozein ezusteko izaten baduzu.

Ikusten duzu. Nissanen sinestuta gaude autoak ondo egiten ditugula. Gainerako guztiak urteak kentzen saiatzen diren bitartean, guk hartu egiten ditugu.



*Gidatu eta Gozatu*



**ALDIBI AUTOAK, S.A.**

ZIGARROLA 1 - TF.: 943 71 20 02 - 20500 ARRASATE





## Batzar Nagusia

Tomasa Zabaleta / San Xosepe jubilatuen elkarte presidentea

San Xosepe Jubilatuen Elkartearen Batzar Nagusia hilaren 25ean izango da, arratsaldeko 5etan elkartearen lokalean. Lerro hauek aprobetxatuz bazkide guztiak gonbidatu nahi ditut batzarrerara.

Hasteko, Zuzendaritza Batzordeak ia-zko batzarrean onartutako programa bete den ala ez azalduko du, horixe delako bazkideek Zuzendaritza Batzordeak egindako gestioa kontrolatzeko era bat. Memoria egin da, eta bertan jaso da orain arte egindako jardueren berri eta partehartzeari buruzko estadistika. Batzarrerara datozen guzti barietateak zaie memoria, eta etorri ez arren eskatzen duten bazkideei ere emango zaie.

Bestalde, 1998ko Batzar Nagusia hainbat helburu onartu genituen, elkartearen funtzionamendua hobetzeko asmoz. Alde batetik, elkartearen barne funtzionamendua hobetzeko helburuak: bazkideen arteko komunikazioa hobetzea, kuoten ordainketak domizializatzen hastea, bazkide kopurua handitzea 2000garren urtean 2.000 bazkide izan ditzagun, eta administrazioaren antolaketa hobetzea.

Beste alde batetik, kanpora begirako hainbat helburu ere onartu genituen, herrian dugun presentzia handitzeko: Kultur Hamabostaldia antolatzea, San Martinetako danborradan parte hartzea eta mendi irteerak antolatzea herritar guztiendako irekiak.

1998ko memoria ikusita, garbi dago San Xosepe elkarteak egindako jarduera zabala izan dela eta jendearen partehartze handia egon dela. Datu aipagarria da jarduera guztiak kontutan hartuta, 4.328 lagunek hartu dutela parte. Jaso diren dirulaguntzen zatirik handiena kultur-ekintzetan eta prestakuntzarako jardueretan, Terapia Okupazionalan eta 87 urtekoen omenaldian erabili da. Izan ere jarduera horien helburua jubilatuek gorputza eta burua sasoiari edukitzeko prebentzio ekintzak bultzatzea da. Antolakuntza aldetik ere, oso garrantzitsua izan da hobetzeko helburuarekin lan egiten hasi izana, gure funtzionamendua hobetzeko lagungarri izan direlako.


*“Aurrera egiteko neurtu egin behar ei da, eta neurtzeko modu egokia da helburuak batzarrak onartu behar izatea eta Zuzendaritza Batzordeak urtean zehar egindako lana azaldu behar izatea”*

Oraingoan, 1999ko programa eta hobekuntza helburu berri batzuk onartzeko eskatuko diogu Batzar Nagusiari. Hobekuntza helburuak lagungarriak dira aurrera egiteko, bestela errazago arituko garelako noraezean.

Aurrera egiteko neurtu egin behar ei da, eta horren haritik, neurtzeko modu egokia eta dinamizatzailea da helburuak batzarrak onartu behar izatea eta Zuzendaritza Batzordeak urtean zehar egindako lana azaldu behar izatea. Gainera, San Xosepe elkartearen lehenengo Zuzendaritza Batzordeko kide erdiak aldatu behar direnez, batzarrak onartu beharko ditut parteide berriak. Hortaz, bazkide guztiak izenean, eskerrak eman nahi dizkiegu karguan egindako lanagatik orain arteko ardura lagako duten kideei: Gerardo Mondragon (lehendakariordea), Patxi Laskurain (idazkaria), Honorio Sampietro (diruzaina), Maritxu Lizarralde, Jose Morras eta Felix Uriarte (batzordekideak).

Batzarra ondo joatea espero dugu. Aurreko batzarretako esperientzia, behintzat, oso ona izan zen, bai partehartze handia egon zelako, bai batzarretan egondako bazkideek interes handia erakutsi zutelako. Izan ere batzarrean partehartzeak eta elkartearen jardunen berri jakin nahi izateak erakusten du bazkide kuota ordaintzea baino gehiago dela. **B**

barruan




**Roman Larrañaga**

Argazkilaria izandakoa

*“Etxean neukan materiala Udal Artxiboan gordeko dute ondoen”*

8.



**Igor Larrañaga**

Futbolaria

*“Dagoeneko 17 hilabete daramatzagu etxean partidurik galdu barik”*

21.



**Jose Joaquin Solis**

Taxista

*“Urtean 60.000 km. inguru egiten ditut taxiarekin; bidaia luzeena, Portugalera”*

29.



# orain dela...

## BERGARAN GERTATUA

**1793.** Martxoaren 23an Joakin Irizar Moya jaio zen Bergaran. Herriko alkate izan zen hainbat urtetan eta Gipuzkoako Diputatu Nagusi izatera ere iritsi zen. Hainbat lan argitaratu zituen tartean. Hona hemen horietako biren izenburuak: "Memoria sobre el absurdo del sistema métrico decimal" (1870) eta "De l'usquere et de ses erderes on de la langue et de ses derives" (1841). Azken hau 5 tomoz osatua, guztira 1.220 orrialde dituela.

## EUSKAL HERRIAN GERTATUA

**1583.** Martxoaren 20an Juan de Garay, Buenos Aires hiriaren sortzailea, indiar kerandiek hil zuten.  
**1770.** Martxoaren 17an Carlos III.ak Bizkaiko Foruak zin egin zituen.  
**1989.** Martxoaren 16an Jesus Maria Leizaola lehendakari ohja hil zen.

## MUNDUAN GERTATUA

**1995.** Martxoaren 16an esklabotza Estatu Batu guztian abolitu egin zen.

# zozketak

## BONO LOTO

**Eguakitza 12**  
 2-16-17-24-28-37 (osag.48/itz.3)  
**Astelehena 15**  
 9-14-23-26-39-48 (osag.13/itz.3)  
**Martitzena 16**  
 2-4-13-15-35-37 (osag.8/itz.4)

## PRIMITIVA


**Zapatua 13**  
 11-12-18-24-28-37 (osag.26/itz.5)  
**Domeka 14 Saritzarra**  
 10-12-30-34-39-47 (osag.33/itz.0)

## ONCE

**Eguakitza 12:** 90.166 (143 seriea)  
**Astelehena 15:** 28.021  
**Martitzena 16:** 36.477

## Eguraldia

*Igeldoko meteorologi behatokia*



Eguen iluntzean eguraldiak okerrera egingo du eta euri langarra egin dezake eguakitzean. Nolanhi ere, astebururako giro nahasia iragartzen da, tenperaturak behera egingo du zertxobait eta haizeak ekialdetik joko du.

## Ilargiaren aldiak

- Ilberri: martxoak 17
- Ilgora: martxoak 24
- Ilbete: martxoak 31
- Ilbehera: apirilak 9

## Eguzkia

*Domeka, martxoak 21*



Sortu: 07:20



Gorde: 19:32

## Temperaturak eta euria Bergaran

*Luis Mari Agirre*


	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m <sup>2</sup>
<b>Eguena 11</b>	22	5	1,5
<b>Eguakitza 12</b>	19	9	0,2
<b>Zapatua 13</b>	13	5	6,8
<b>Domeka 14</b>	13	9	2,2
<b>Astelehena 15</b>	14	10	-
<b>Martitzena 16</b>	15	9	-

# bertako berbak

*Juan Martin Elexpuru*

## Arabota

*Juniperus communis.*  
 Araota eta arabaota ere esaten zaio. Epurua. Mendietan, goi xamarrean, batik bat, ugari dagoen sastraka. Orri zorrotz eta tenteak ditu baina ez eztakarik, oteak bezala. Jinebra egiteko erabiltzen diren fruitu txiki borobilak ematen ditu. Erre ezkeru oso usain ona uzten du.



JOSU OINA



**Leire Otero**  
 Martxoaren 18an 11 urte.  
 Urte askotarako! Familiakoak.



**Unai Sanchez**  
 Martxoaren 19an 7 urte.  
 Urte askotarako! Etxekoak.



**Markel Lopez**  
 Martxoaren 18an 7 urte.  
 Urte askotarako! Etxekoak.



**Maximo Etxabe**  
 21ean urtebetetzea.  
 Urte askotarako! Gorka, Aitor eta Irahoko lagunak.



**Marijose Diez**  
 Martxoaren 19an urtebetetzea.  
 Urte askotarako! Ahizpak.



**Mirian Garate**  
 Martxoaren 18an 31 urte.  
 Urte askotarako! Ikasleak.

## Farmaziak

- Eguena 18:**  
 CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.
- Eguakitza 19:**  
 PUJ. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.
- Zapatua 20:**  
 GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.
- Domeka 21:**  
 GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.
- Astelehena 22:**  
 ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.
- Martitzena 23:**  
 MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.
- Eguaztena 24:**  
 CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.
- Eguena 25:**  
 PUJ. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

## Ogia

**Eguakitza 19:** Mizpildi.  
**Domeka 21:** Ogizun.

## Telefonoak

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- SOS deiak 112  
 DYA 943 78 71 57  
 Gurutze Gorria 943 76 55 76  
 Larrialdiak 943 46 11 11  
 Ambulatorioa (txanda) 943 76 24 40  
 Ambulanzia 943 55 49 62  
 Udaltzaingoa 943 77 91 06  
 Ertzaintza 943 76 53 40  
 Suhiltzaileak 943 78 28 00  
 Osasun Etxea 943 76 24 40  
 Arrasateko ospitala 943 03 53 00  
 Asepeyo 943 76 16 43  
 Pakea 943 76 13 49  
 Angiozarko medikua 943 78 90 27  
 Antzuolako medikua 943 76 62 23
- GARRAIOAK**
- Euskotren 943 45 01 31  
 PESA 902 10 12 10  
 Taxiak 943 76 19 50  
 RENFE 943 28 35 99
- UDALA**
- Udaletxea 943 77 91 00  
 Udal Artxiboa 943 77 91 32  
 Igerilekuak 943 76 20 51  
 Kultur Etxea 943 77 91 58  
 Liburutegia 943 77 91 62  
 Mizpirualde Egoitza 943 76 13 60
- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92  
 Erregistroa 943 76 13 15  
 Jardun 943 76 36 61  
 Jubilatuen Etxea 943 76 21 40  
 Postetxea 943 76 26 05



URTEURRENA

## Julian Garitano Elkoroiribe

Lehen urteurreneko meza domekan, martxoak 21, eguerdiko 12:30etan, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

## Pako Herrerros Camacho

Lehen urteurreneko meza domekan, martxoak 21, eguerdiko 12:30etan, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

## zorion agurrak

### Adi!

**ASTE SANTUKO OPORRAK** direla eta, Berrigara 361ean, **MARTXOAREN 26a** eta **APIRILAREN 8a** bitartekoen zorion agurrak argitaratuko dira.



**Maider Agirrezabal**  
22an 3 urte. Urte askotarako! Familia, Gorka eta M. Luisa.



**Arantxa Garcia**  
Martxoaren 22an 37 urte. Urte askotarako! Aita eta Jon.



**Jon Iturbe**  
Martxoaren 18an 17 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta Olatz.



**Aitziber Perez**  
Martxoaren 22an 5 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



**Lidia Barrutia**  
Martxoaren 22an 30 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



**Miren Barrutia**  
Martxoaren 22an 38 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



**Estibaliz Cuesta**  
Martxoaren 22an 8 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



**Mariano Agirre**  
Martxoaren 21ean 47 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



**Karmelo Arizaga**  
Martxoaren 23an urtebetetzea. Urte askotarako! Etxekoak.



**Ariana Sasieta**  
Martxoaren 23an urtebete. Urte askotarako! Ama, aitta eta Elene.



**Ana Sebal**  
Martxoaren 18an urtebetetzea. Urte askotarako! Gurasoak, Lide eta amama.



**Jurdana Otermin**  
Martxoaren 20an 4 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



**Igor Okina**  
Martxoaren 18an 3 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



**Segunda Latorre**  
Martxoaren 24an 83 urte. Urte askotarako! Igor.



**Aloña Mondragon**  
Martxoaren 21ean 24 urte. Urte askotarako! Koadrilakoak.



**Kimberly Castro**  
19an 3 urte. Urte askotarako! Osaba-izebak eta aitajaun-amandriak.

URTEURRENA

## Dominika Laka Onaindia

Lehen urteurreneko meza domekan, martxoak 21, eguerdiko 12:30etan, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

## Juli Maortua Madariaga

Bergaran hil zen 1999ko martxoaren 6an, 78 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

## Maria Aranzabal Laskurain

Lehen urteurreneko meza domekan, martxoak 21, eguerdiko 12:30etan, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

hildakoak

**BERGARA**

**Maria Teresa Legorburu Orue**  
Martxoak 10, 88 urte

**Sor Maria Paz Larrañaga Gallastegi**  
Martxoak 10, 72 urte

**Dolores Jauregi Laskurain**

Martxoak 13, 91 urte

**Concha Roman Perez de Albeniz**  
Martxoak 13, 95 urte

**Tomas Eguren Azkorbebeitia**  
Martxoak 16, 77 urte

jaiotakoak

**BERGARA**

**Markel Fernandez Garcia**  
Martxoak 9

**ANTZUOLA**

**Eneko Martin Rodriguez**

Martxoak 11

**Mairi Olabarria Etxezarreta**  
Martxoak 13



## ANTZERKIA

► **Eibarko XXII. Antzerki Jardunaldiak:** eguakitzean, hilak 19, **"Muac!"**, Grapa Teatro taldearen eskutik; zapatuan, 18:30etan, **"Haurra xutik"** Theatre des chimeres taldearekin; astelehenean Entrecajas producciones taldearen **"Las ultimas lunas"** eta, azkenik, martitzenean, **"Del poder y la gloria"** (Antzerkirako Ikasgela taldea). Zapatukoa ezik, emanaldi guztiak 20:30etan, Unibertsitate Laboralean.

► **"Las ultimas lunas"** (Entrecajas taldea) eguakitzean, hilak 19, 22:30etan Elorrioko Arriola aretoan.

## MUSIKA

► **Los Rancios** taldea eguakitzean 23:00etan **Soraluzeko Gaztetxean**. Zapatuan **Tribu** taldearekin batera, ordu berean **Elgetako Gaztetxean**.

► **Bertso trama** eguenean, hilak 25, Soraluzeko Gaztelupe tabernan, 22:00etan.

## ERAKUSKETA

► **"Bergara iruditan: azken 40 urteetako aldaketak"** argazki erakusketa domekara arte Udaletxeko Pleno aretoan.

► **Mugen gainetik** taldearen "Afrika gure etorkizunean" era-

## ERAKUSKETA


### Usoa Mendikutereren margoak

**Non:** Nahikari tabernan  
**Noiz:** martxoaren bukaerara arte

Usoa Mendikute margolari gaztearen forma geometrikoak ikusgai dira egunotan Nahikarin. Usoak 22 urte ditu eta Arte Ederretako laugarren maila egiten ari da Leioako Fakultatean. Honako hau bakarka egiten duen lehendabiziko erakusketa da. Aurretik, herriko margolariak Gabonetan egiten ohi duten erakusketan edota iaz Egin egunkariaren alde Kultur Etxean antolatutakoan parte hartu izan du. Orain, Nahikariko honetan, urtarrila eta otsaila bitartean egindako 27 koadro aurkezten ditu Usoak. Kolore biziko pinturak eta collageak dira eta akuarelazko orriekin egindako blok batzuk ere landu ditu Usoak. Bere hitzetan, "koadro abstraktoak dira. Geometria lantzea gustatzen zait eta lerro zuzenekin jokatu nahi izan dut, tuberiak eta

horrelakoak margotuz. Lerroak gurutzatzean sortzen diren egiturak gustatzen zaizkit, lerroen arteko efektoa eta koadroan sortzen diren espazioak".

Esan bezala, Usoa Arte Ederretako ikasketak amaitzeaz dago; "gauzak ondo badoaz datorren urteko otsailean bukatuko ditut. Azken bi urteotan pintura landu izan dut Fakultatean eta ikusi behar zer suertatzen den handik irteerakoan...". Gustoko dituen pintoreen artean Mondrian, Halley edota Scully aipatu dizkigu. Bere lehendabiziko erakusketa taberna batean egiteak jende gehiago erakar dezakeela uste du; "gazte jendea errezago joango da tabernara koadroak ikustera, Kultur Etxera baino. Ea aurrerantzean beste nonbaiten nire lana erakusteko aukera izaten dudana...".



Usoa Mendikutek 27 koadro zintzilikatu ditu Nahikarin.

kusketa Kultur Etxean.

► **Xabier De Zerio**ren eskulturak Sopelako Kultur Aretoan.

► **Ion Andoni Urisabel**en margoak Bilboko Juan Manuel Lumberas arte galerian (Henao, 3).

## IKASTAROAK

► **Islada Bideo Tailerra** antolatutako photoshop ikastaroa apirilaren 12tik 23ra bitartean. 943 77 91 58.

► **Sexualitate tailerra**

Arrasaten: "Emakumeak eta gizonak; nolako desioak, nolako kontraesanak", apirilaren 20an eta 27an eta maiatzaren 4an eta 11n, 18:00etatik 20:00etara. Izen-ematea martxoaren 31ra arte zabalik Arrasateko Udaleko Gazte Bulegoan (943 77 00 65).

**ARRANO**  
  
**Taberna**  
Kruz Gallastegi BERGARA

**ETXEBERRIA**  
**ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA**  
Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

  
**GOXO-TOKI**  
Iraila 3. Tf. 943 76 12 35  
Martziategi 34. Tf. 943 76 23 37  
BERGARA



## LEHIAKETAK

► **Jarduneko Gazte Taldeak txorimalo lehiaketa** iragarri du Erramu Zapaturako, martxoaren 27rako. Izen ematea Gartzela Zaharrean martxoaren 24ra arte zabalik. 943 76 36 61.

► **Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketan XVII. ediziorako kartel lehiaketa.** Irabazleak 150.000 pezetako saria jasoko du. Lanak aurkezteko epea martxoaren 31n bukatuko da. 943 15 72 00.

## DEIAK

► **Moda desfilea** eguakitzean, hilak 19, 23:00etan Jam aretoan, Eibarko ikasle talde batek antolatuta. Desfilearen ondoren jaia izango da.

► **Odol ateraldia** eguaztenezan, martxoak 24, 18:30etan Seminarioko lokalean.

► **San Xosepe elkarte.** Xacobeo 1999 programaren barruan, Galizia bisitatzeko bost eguneko bidaia izango da ekainaren 15ean hasita (33.500 pezeta). Argibideak eta izen-ematea: 943 76 21 40.

► **Pol-Pol Mendizale Taldeko gazte sailak** Aste Santuan akanpada antolatu du Pirineotan, apirilaren 1etik 5era. Argibideak Pol-Poleko bulegoan, astelehenetik eguenera 19:00etatik 20:30etara.

► **Hitzaldia: "Euskal sare gorria Interneten"** gaur, hilak 18, 21:30etan Elgetako Gaztetxean. Eguakitzean, berriz, "Poesiaren aldekoen eta kontrakoen arteko kontrobertsia" izenburuko mahai-ingurua 22:00etan Gaztetxean bertan, Gerardo Markuleta, Arantxa Ozaeta, Kirmen Uribe eta Iban Zalduren partaidetzarekin.

► **San Xosepe jubilatuen elkarteko batzar orokorra** eguenean, hilak 25, 17:00etan. Bazkide guztiei egiten zaie dei bertaratu daitezen.

► **Arabako txakolina eta makailoari** buruzko hitzaldidastaketa eguenean, hilak 25, Gure Ametsa elkarte, 19:30etan. Ondorengo afarirako izen ematea astelehenera arte zabalik. Plazak mugatuak dira.

► **Udalak jakinarazi nahi du** 1998ko laugarren hiruhilabeteko ura eta zaborraren zerga ordaintzeko epea astelehenean, hilak 22, bukatzen dela.

## KINTADAK

► **1956an** jaiotako gipuzkoarren anaiarteko eguna martxoaren 28an Zarautzen. Hildakoen oroimenezko meza 13:00etan Santa Maria parrokian eta jarraian bazkaria Aiten Etxe jatetxean. Bertan izan nahi duten bergararrek 943 76 11 73 zenbakian eman dezakete izena.

## Z I N E A

## KARTELDEGIA

## BERGARA. Novedades

**Quedate a mi lado**  
Eguakitza: 17:00, 19:30, 22:30.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

**Elizabeth**  
Eguena, hilak 25, zine-kluba: 20:00.

## ARRASATE. Alai zinema

**El abuelo**  
Eguakitza: 17:00, 19:30, 22:00.

## Quedate a mi lado

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.  
Astelehena, 21:30.

Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

## ARRASATE. Amaia

**Hana-bi** (Jatorrizko bertsioan)  
Eguena, hilak 25, zine-kluba: 21:30.

## EIBAR. Unzaga

**La delgada línea roja**  
Eguenetik (hilak 18) eguaztenezan (ik. eguna): 19:00, 22:15.

## EIBAR. Rialto

**Elizabeth**  
Eguakitza: 17:00, 19:30, 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

## OÑATI. Santana

## Quedate a mi lado

Eguakitza: 19:30, 22:30  
Zapatua: 19:30, 22:30  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30.

## Jack Frost

Domeka: 17:00.

## Kundun

Eguena, hilak 25, zine-kluba: 20:00.

## ELORRIO. Arriola

## ¿Conoces a Joe Black?

Zapatua: 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:00.

## Abril

Eguena, hilak 25, zine-kluba: 20:15.

## QUEDATE A MI LADO

**Zuzendaria:** Chris Columbus.

**Aktoreak:** Julia Roberts, Susan Sarandon, Ed Harris.

Isabel (Julia Roberts) eta Jackie (Susan Sarandon) ez dira elkarrekin ondo konpon-tzen; Jackie ama perfektoa den bitartean, Isabel ama izatea nahi ez zuen amaordekoa dugu. Bien arteko konfliktoak bere seme-alabengan eragina izango du eta ikuslea ere beraien tristezia eta poztasunen testigu izango da.



## ELIZABETH

**Zuzendaria:** Shekhar Kapur.

**Aktoreak:** Cate Blanchet, Geoffrey Rush, Christopher Eccleston.

Datorren astean banatuko diren Oscarretan filme onena eta aktorea onena (Cate Blanchet) sarietan izendatuta dago 1554ko Ingalaterran girotutako filme hau. Bere herria krisian murgilduta dagoen bitartean, Isabel erregina bere gaztetako amodioa berreskuratzen ahaleginduko da, tartean bere kontrako konspirazioei aurre egingez.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

Ganbara  
TABERNA

Heure erara  
ibiltzeko!

Irala z/g. Tf. 943 76 55 75



KORTA-ZAR  
Txokolategia

Pintxo eta ogibartekoan  
espezialitatea

Barrenkalea 16 ☎ 943 76 20 62

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots,  
untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09



**Joan zen asteko Plenon, Roman Larrañaga argazkilari ohiak Udal Artxiboari egin dion dohaintza onartu zen: 1960-tik 1985era bitartean herrian jasotako 5.000 imajin inguru. Esan daiteke Roman garai bateko kronista grafikoa izan zela. Orain, jasotako irudiak behar bezala sailkatu eta gordeko dira Udal Artxiboan.**

**G.** Noiz eta zela hasi zinen argazkigintzan?

**E.** Soldadutzara joan baino lehen, Sabin Ugartek eta biok ezkontza erreportajak egiten genituen. Gure kontura hasi ginen, autodidaktak ginen nolabait eta Sabinen etxean laborategi txiki bat geneukan. Contaflex eta Retina Kodak kamarekin ibiltzen ginen orduan eta ezkontza erreportaiak egiteaz gain, kirol ekitaldietara hasi ginen joaten. Bergarak Agorrosinen jokatzeko zituena partiduetan argazkiak atera, partidua amaitu baino lehen errebelatu eta emaitzarekin batera Deportiboan jartzen genituen gero, jendeak ikusteko. Ziklo-kross probekin ere gauza bera egiten genuen.

**G.** Argazkigintza ofiziotzat hartu zenuen arte.


**E.** Maestria Eskola amaitu ondoren, delineante ikasketak egin nituen Plazentzian eta, ondoren, Antonio Agirresaroberekin batera, argazkigintza industrialan lantzen hasi nintzen Eibarren: enpresendako katalogoak egiten. Handik urte batzuetara argazki denda zabaldu nuen Bergaran eta 1984. urtearen inguruan hura itxi eta azken urteak Eibarren eman nituen, Estudio de publicidad enpresan.

**G.** Orain, zela sortu da zure argazkiak Udalariko dohaintzan emateko aukera?

## ROMAN LARRAÑAGA

Argazkilari ohiak

*“Etxean neukan argazki materiala Udal Artxiboan gordeko dute ondoen”*



Super-8an errodaturako pelikula ere gordetzen ditu Roman Larrañagak.

**E.** Arantzazu Oregik deitu zidan Udal Artxibotik, eta nire argazkilari sasoiko materiala gordeta neukan. Lehendik ere badauzkate partikular batzuen argazkiak eta ondo iruditu zitzaizkidan etxean neukan materiala Udalariko ematea, ondoen egongo delako, lan ederra egiten ari dira eta. Guztira, 5.000 imajin inguru

*“Transiziokoak urte biziak izan ziren eta interes gehien duten argazkiak garai hartako ekitaldi politikoetakoak izango dira”*

dira: argazki mordoak, baina gehienak negatiboak.

**G.** Zelako argazkiak dira eman dituzunak?

**E.** Herrian izaten ziren kirol ekitaldietan, jaietan edota ekitaldi politikoetan ateratako argazkiak daude: kirol txapelketako argazkiak, San Martineko danborradakoak, Pazkuetakoak... Garai batean El Diario Vasco egunkariak lagatako korrespontsal grafikoa erakartarekin ibiltzen nintzen eta ekitaldi guztietara kamara eramaten nuen. Politikari dagokionez, urte biziak izan ziren trantsizio garaiko haiek eta badira ekitaldi politikoetan edota manifestazioetan ateratako argazkiak ere. Hauek dira behar bada interes gehien dutenak: Telesforo Monzon Bergarara etorri zeneko argazkiak, bere hileta egunekoak, Ikurrina legezatu zutenekoak...

**G.** Argazkiez gain, Super-8ko pelikula ere badu omen daukazku.

**E.** Bai, zuri-beltzeko eta koloreko argazkiak, diapositibak eta pelikula ere egiten nituen eta etxean badi-tut 120 eta 180 metroko 15 bat roilo pelikula. Bideoaren etorrerarekin Super-8ko formatoa erabat galdu zen baina oso kalitate ona lortzen zen Super-8arekin. Dena den, gure orduko medioak mugatuak ziren; esate baterako, jubilatuen irteerak grabatzeko kotxean joaten nintzen, beraien autobusen aurretik, txirindularitza probetan telebista kamarak ibiltzen diren antzera. Ondoren, grabatutakoaren muntaia egiterakoan, soinua sartzen genion ahal genuen moduan eta listo; adibidez, imajinetan norbait soinua jotzen agertzen bazen, Fernando Etxeberria ibiltzen zen gero soinua jotzen eta halaxe ibiltzen ginen. **B**



# San Kristobalگو hondakindegia itxi eta beste toki batean jarriko dute


## Eibar-Gasteiz autopistako biadukto bat honen gainetik joango da

**San Kristobalگو hondakindegia tokiz aldatu beharko dute Eibar-Gasteiz autopista egiteko. Horretaz gain, inguru horretako beste hiru baserri eragingo die autopistaren trazatuak.**

Eibar-Gasteiz autopista egiteko Bergarako udalerrian, hain zuzen ere, Ondartzatik Labegarieta arteko zatian, egingo diren desjabetzen barruan hartu beharreko ondasun eta esku-bideen gaineko alegazioak onartu berri ditu Udalbatzak.

### 18 MILIOI PEZETA

Hondakindegia dagokionez, autopista egin aurretik beste kokapen bat topatzea eskatzen dio Bergarako Udalak Gipuzkoako Diputazioari. Hondakinak lagatzeko biltegia beste toki batean kokatzea 18 milioi pezeta-ko aurrekontua dauka. Oraindik ez da zehaztu hondakindegia berria zein tokitan jarriko den, baina bi urte inguruko epea izango da aldaketa egiteko. San Kristobalگو hondakindegia 1995an zabaldu zen.



San Kristobalگو hondakindegia 1995eko otsailean zabaldu zuten. Bi urte barru edo itxi egin beharko da.

### HIRU BASERRI AFEKTATUAK

Bestalde, autopistak Angiozarko bailarako hiru baserri eragingo die: Santalde, Aldeta-Azpikoa eta Aldeta-Gainekoa. Santalde inguruan 15.000 metro karratu beharko dira autopistarako. Baserria lubeta ondoan geratuko litzateke eta, horregatik, baserria beste toki batean kokatzea aztertzea eskatzen du Udalak.

Aldeta-Azpikoa baserria, bestalde, bota egin beharko dute autopistaren biaduktoa egiteko. Baserria monumentu izendatuta dago eta horrela jasota dago Arau Subsidiarioetan eta Jaurlaritzako inbentarioan. Horregatik, baserriaren balio handieneko elementuak kendu eta etxe berria egiten denean berriz ere montatzeko argazki eta plano zehatzak egitea eskatzen du Udalak.

Aldeta-Gainekoa baserria ere monumentu kalifikatuta dago eta autopistaren biaduktoa baserriaren gainetik pasatuko denez, trazatuak ahalik eta gutxien eragin diezaion beharrezko neurriak hartzea eskatzen du Udalak.

Autopistaren obrak Aste Santu ostean hastekoak dira. Nolanahi ere, Ondartza eta Eibar arteko zatia egingo da lehenbizi. **B**

FERRETERIA  
INDUSTRI HORNIDURAK

# LAKOTA

Amillaga 1, 3 pabilioia. 217 posta kutxa  
Telefonoak: 943 76 08 32 / 76 01 96  
Faxa: 943 76 08 32

# AITEC S.L.

Estaldura galbanikoen eta pinturazkoen  
kalitate kontrola egiteko  
gailu teknikoetarako aholkularitza

Arruriaga 12, behea. Telefonoa: 943 08 09. Faxa: 943 76 43 19





Errege Mintegiko fosil eta mineralak zabor poltsetan gordeta zeuden orain dela urte batzuk lanean hasi aurretik.

## Aranzadi Zientzia Elkarteak 10 pieza emango dizkio Udalari

### Errege Mintegiko bildumarako moluskoak dira

**Aranzadi Zientzia Elkarteak Geologia sailak egindako 10 piezen dohaintza onartuko du astelehenean Udalbatzak. Errege Mintegiko bildumako Mineralogia eta Paleontologia saileko 10 fosil txiki dira (moluskoak) Aranzadi Zientzia Elkarteak aurten emango dituenak.**

Bergarako Errege Mintegiko bilduma bost sailetan banatuta dago: Zientzia

aparailuak, Zoologia, Giza anatomia, Mineralogia eta Paleontologia. 1992 urteaz geroztik, bilduma osoa berreskuratzen, hau da, piezak zenbatu, txukundu, desparasitatu eta katalogatzen ari dira. Zientzia aparailu, Zoologia eta Giza Anatomia sailetako lanak nahikoa aurreratuta daude, baina amaitzeko daude. Bestalde, Mineralogia eta Paleontologia sailetako piezak ordenatu eta katalogatzen 1995. urtean hasi ziren eta asmoa 2000.

urterako lanak amaituta edukitzea da. "Zaila egiten da piezak nola zeuden sinistea. Lanean hasi ginenean, zabor poltsetan, zapata kutxetan edota bazterretan lagata aurkitu genituen piezak. Sekulako lana egin behar izan da eta oraindik asko geratzen zaigu egiteko" esan digu Xabier Aranburu udal museologoak.

Aranzadi Zientzia Elkarteak egingo duen dohaintza hau, 1995. urtean Bergarako Udalarekin adostutako hi-

tzarmenaren ondorioa da. Bost urterako plangintza adostu zen eta piezak berreskuratzeko metodologia zehaztu zen.

1996. urtetik 2000. urtera arte, Euskal Herriko fosil eta mineralen dohaintza egingo du Aranzadi Zientzia Elkarteak eta urtero pieza kopuru bat emango dio Bergarako Udalari. "Bilduma osatzen denean, Euskal Herriko mineralogia eta historia paleontologiko osoa esplikatu ahal izango dugu" diosku udal museologoak. Materialak kalitatearen arabera klasifikatzen, inbentariatzen eta pieza bakoitzari buruzko txosten zehatz eta zientifikoa egiten ari dira.

### EUSKAL HERRIKO BILDUMA BAKARRA

Errege Mintegiko bilduma osatzen duten bost sailetako piezen berreskuratzeko lanak datorren legealdi amaieran bukatzea da helburua. Guztira, 700 piezaz osatutako bilduma berreskuratzeko da. Bildumaren konposizioagatik, hainbat eta hainbat piezaren antzinasunagatik eta bilduma osoaren garrantzia historikoarengatik bakarra izango da Euskal Herrian eta piezak erakusteko museo egokia beharrezkoa izango da.

Museoa Errege Mintegian jartzearen aldekoa da Xabier Aranburu, bildumak bere egoitza historikoan kargatzea izan dezan, baina hori agintarietara erabaki behar harko dute. **B**

**AGOITZ**

**Tapizdenda**

Leizariako San Lorenzo 25  
BERGARA  
Tf.: 939 84 57 47



Amillaga, gasolindegian ondoan. Tf.: 943 76 57 34

**ZABALETA  
ERROTULOAK**

**Mota guztietako errotuloak  
Fatxadak, eskapareak...**



**ARRI**

**Industri  
Hornidura**

Zubiaurre 30  
Tf. eta faxa: 943 76 19 04.  
Mugikorra: 670 31 92 44.







# Berrigara

360 zenbakia.  
1999ko martxoaren 18a.

**Errotalde Jauregia. 20570 Bergara**  
**Telefonoa: 943 76 03 97**  
**Faxa: 943 76 29 77**  
**Argitaratzailea: JARDUN Elkarte**

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate.  
**Erredakzioa:** Eneko Azkarate, Edu Mendibil, Aitziber Azkondo.  
**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.  
**Publizitatea:** Uxue Zabaleta.  
**Harpidetza:** Itziar Kortabarria.  
**Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Alex Labaien, Mirari Alberdi, Mariipi Laskurain.  
**Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkorobereziar, Alex Labaien, Gorka Elortza.  
**Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.

**Kolaboratzaileak:** Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.  
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.  
**Inprimategia:** Gertu Koop. Eik. (Zubillaga. Ofiati).

Azaleko argazkia: Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.  
Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Erakunde hauen laguntza:**



Bergarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

## gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

### GURE HERRIAN ERE HAS GAITEZEN BERTAKO ZUHAITZAK KONTSERBATZEN!

Oraingo honetan, Mendia Bizirik taldeak, gure herriko mendi, kale, parke, bide bazter eta hainbat txoko bertako zuhaitz eta zuhaisken beharrea daudela aldarrikatzeko kanpainari ekin dio. Garai batean arruntak ziren espezieak ia erabat desagertu dira Bergararik.

Aspalditik, "garbiketa" faltsoen ohiturak, errazlanak, merkeenera joateak eta kontserbazio irizpideen ezak batez ere, bertako zuhaitzak kentzen joatera bultzatu du. Arraroa da gaur egun bertako zuhaitz osoak, zaharrak, helduak ikustea; arruntena podaz itxuragabetua, moztuta edo edonola izorrotuta aurkitzea da, aurkitzen direnean.

Hori gertatu da esate baterako erreka bazterretako landarezarekin, ezjakintasun tontoenarekin suntsitu da. Herialde garatuenetan erreka bazterrek bere nortasunarekin aberats mantentzen

tzeko obra handiak egiten ari diren bitartean, gu hemen Zubitza eta Torrekua tartean kanala, farolak eta asfaltoarekin ibai bazterra estaltzeko irrikatzen! Biodibertsitatea kontserbatzea... Amazonaserako bakarrik?

Gaur egun ere, mozketen ondoren landatzeko orduan kanpoko zuhaitz "exotikoak" erabiltzeko moda eta ohitura dago hemen. Mintegi komertzialak majo aprobetxatzen dira erakunde publikoen irizpide faltaren aurrean, eurentzat errentagarritasun handiena duten espezieak sartuaz".

Bertako espezieak sartzeko orduan, berriz, badi-rudi pegoa dagoela bakarrik. Garai batean Bergaran nagusi ziren beste espezie batzuk (haritzak, gaztainondoak, arteak...) eta gaur egun ia desagertuak, landatzeko orduan beti ahaztu!

Aspalditik daukagu harremana Udalarekin, hiri, mendi eta ibai bazterreko arazoetan gutxieneko kontserbazio-jarrerak lortu nahian. Ahal dugun neurrian lagundu nahian ibil-

tzen gara, hitz eta asmo onak aurkitzen ditugu, baina Udalean gai hauekiko irizpide propiorik ia ez dagoenez, behin baino gehiagotan Udalak berak "nahigabe" eginiko triskantzak ere ikusi behar izan ditugu, erreka bazterrean, San Martzialen eta abar. Irizpide propiorik ez izateaz gain, arazoa utzikeria ere bada batzuetan.

Bergarako ondare naturala ganoraz gorde eta sustutzeko, herri aberatsa eta bizitzeko goxoagoa lortu ahal izateko, irizpide argiak ezarriko dituen azterketa profesionala behar du gure herriak. Orain arte kontserbazioaren alde egin den apurra anekdota hutsa besterik ez da izan: jokabide hau gaingitu eta irizpide zein plangintza iraunkorrak onartzeko ordua da.

Horregatik, gauzak ondo, jarraipenarekin eta irizpide teknikoaren arabera egitea erraza eta merkea dela uste dugulako, hasi gaitzen behingoz.

Mendia Bizirik Pol-Pol

## tira biraka: bittor rodriguez





■ atrebentzia ezpada

## Ze iritzi daukazu Eusko Legebiltzarra kurduiei lagatziaren inguruan?



**Tomas Gezalaga**

Zerbait irakurri dot horren inguruan baina ez daukat informazio gehiegirik eta ez daukat oso iritzi sakonik gai horretan, baina leku bat lagatzia ondo pentsatzen jat.



**Rosario Alkorta**

Horrelako arazuak bagenittu, guk be nahi izango giñuke beste batzuen laguntza jasotzia. Elkartasuna egon da eta hori ondo pentsatzen jat.



**Txomin Manzanedo**

Madrileko gobernuak bere interesak begiraten ditu baina ni ados nago hemen erabakitakoarekin. Duten egoera ikusita ondo iruditzeb zait.



**Idoia Eguren**

Bihar haundixa dauke eta elkartasun biharrian dagoen lurraldia da. Laguntza eskaintzia oso ondo dago, elkartasuna behar dabe eta erabaki ona dala uste dot.



**Ramon Polanco**

Oso ondo iruditzen zait. Gauza demokratiko bat da eta eskubide osoa daukate- la uste dut. Madrileko go- bernua ez dago ados baina ez zaie kasurik egin behar.



**Begoña Irizar**

Egoera gogorra da han daukena eta biltzeko lekurik ez dauke. Euren egoeria kontutan hartuta ondo pentsatzen jat. Legebiltzarraren erabakiarekin ados nago.

■ bai, esan!



Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi izanez gero, deitu 943 76 03 97ra. Identifikatu bariko mezurik ez da onartuko.

### LABEGARAIETAKO TXIMINIEN EGOERA

**Joxe Agirrek** deitu du aste honetan BERRIGARRARA komentario bat egiteko asmoz. Joxe Agirre Labegaraieta aldera joaten da pasiatzera askotan lagunekin batera eta, azkenaldian, bertan Industrialdea kokatzeko egiten ari diren lanak gertutik ikusteko aukera izan du. Joxek ondo ikusten du industria jardueretarako leku apropos bat prestatzea baina pena ematen dio Labegaraietako tximini zaharrak horren egoera txarrean egotea.

Joxek ondo ikusiko luke tximini horiek konpontzea eta, bestela, bota egin beharko liratekeela dio, istripu larriren bat gertatu aurretik. Udalari irtenbidea topatzeko eskatu nahi dio.

■ ikuspuntua: **joxe lazcano**

## Kosovon, Irlandan, Euskal Herrian...

Ailegau ei da berba egiteko denboria. Ea egia dan! Momentu batian atzera egin- go dogu gurian. 63 urte die Francok berba egin zebanetik, 63 urte; gazteondako urte asko izan leizke, gure aiton-amonendako atzo.

Ze zaila dan imajinatzia frankistak uz- tailaren 18 hartan altxatu ez balie, edo eurek probokatutako gerra galdu balebe,



nolakua izango litza- keen gaur egungo egoeria. Historiak bere bide "normala" jarraitu baleu ere, gaur egun arazo mordo bat eu- kiko giñuzke, bukaezina da hauen zerren- da; baina bide "normala" jarraitu ez zeba- nez badittugu horrek danak gehi beste bat: euskaldun izatearen eta izateko esku- biderearen debekua.

Azken hitz horrek berba potoluak emu- ten dabe, oso abstraktuak, oso... baina

errealidadian agertzen dienian oso pano- rama eskasa erakusten dabe.

Hainbeste eskatzia da euskaldunok zer nahi dogun erabakitze- ko eskubidia izat- ia? Ezetz erantzungo dozue gehixenok, ba, etara kontuak!

Esperantzia, itxaropena eta halakuak entzuten die aspaldi honetan, eta alde ba- tetik hala da, baina Españako edozein irrati entzun, telebista ikusi edo egunkari irakurri eta inoiz baino ilunago ikusten da panoramia.

Birtarian, hor jarraitzen dabe presuak, etxetik urrin eta oso egoera txarrian. **B**



■ asteko menua: **infernukua jatetxea**

## Bakailao tortila



JABI LARRAÑAGA  
Infernukua Jatetxekoa

### OSAGAIK

- Bakailao mamia.
- Berakatz freskoa.
- Perrexila.

### PRESTAKETA

- Bakailao mamia gezatzen gutxigora-behera 24 orduz eduki.
- Ondo gezatu ondoren, uretatik atera eta txikitu.
- Berakatz freskoa eta perrexila ondo txikitu.
- Zartagin batean, oliba oliotan berakatz potxatzen ipini.
- Ondoren, bakailaua gehitu eta, azkenik, perrexila.
- Zartaginean guztia denboratxo batez eduki ostean, sutatik kendu.
- Arrautzak irabiatu eta bakailauaz, berakatzaz eta perrexilaz nahastu.
- Zartagin batean tortila egin.

■ adituen esanetan

## Aizkorriko Parke Naturala

IÑAKI IRIZAR, *biologoa*

Euskal Autonomi Elkarteko natura babesteko legea onartu zen 1994. urtean eta territorio zabal batean ekosistema ezberdinetako balioa duten inguruei parke naturalaren izendapena emateko akordioa hartu zen. Besteak beste, Urkiola, Valderejo, Aiako Harria, Aralar, Pagoeta, Gorbea, Izki eta Aizkorri dira kategoria hori izango dutenak eta badirudi Aizkorrik aurtan jasoko duela izendapena.

Parkearen ardatza Aizkorriko mendikate osoa izanik, paisaia aldetik balio handikoa eta fauna eta botanika aldetik aberatsa da inguru hori, hegazti eta landare asko dagoelako haitzen inguruan.

Teorian behintzat, parke natural batek bi helburu ditu: ingurugiroa babestu eta parkeko esplotazioa (ehiza, basogintza, abeltzantza, turismoa etab.) erregulatu. Parkeko patronatoak (administrazioko ordezkariak eta parkean inplikaturako kolektiboak tartean) onartu behar du kudeaketa plana eta ondo dago horrenbesteko balioa duten lekuak erregulatzea. Hala ere, industria jarduera bat (Elgeako parke eolikoa) jasoko duen balio ekologiko handiko lehen tokia izango da Aizkorriko parkea eta kontserbaziorako gauza interesgarriak egiten direnean, pena da bestelako interesei lehentasuna ematea. **B**

■ bergarako gordailutik

## ZAPATARIEN AURKA AUZIA

Imanol Sorondo

**L**au zapatari dira bere izenarekin idazten direnak: Arizagatar Joan, Artekalean bizi dena; Lizarritar Juan Lopez Barrenkalean (baina hil da); Ondarzar Juan, Zubietan; eta Egurendar Martin, Masterrekan. Auzia, batez ere bi lehenengoen aurka da, 1614.eko abuztuan, larruak beren etxeetan lantzen dituztelako, eta hori legez galarazita daukalako; baina, zeharka beste biak ere hartzen ditu. Ondartzaren gaia arina da, Zubietako azkenaurko etxean bizi delako eta, etxe gutxi direnez, larru hauen usainak inor gutxiri kalte egin diezaiokeelako. Moyuatar Diego juradoak aurkeztu du salaketa alkateorde den Izagirretar Pedroren aurrean.

*Eman da erabakia: ez dezatela kalean eta usaina sortu dezakeen tokietan larruak lantzeko tresneriarik eduki; aurka eginez gero, zigorrak jasango dituztela*

Bere burua babestu nahian Arizagatar Joanek zurrategiak herriko kaleetatik kanpora daudela dio, Egurendar Pedroren etxean, eta berak daukan neskekin bere etxean egiten duena Azpeitian, Azkoitian eta Gipuzkoa eta Bizkaia osoan ere egiten dutela ohiturari jarraituz; era berean Bergaran ere berdin egiten dutela Ondarzar Joanek, Egurendar Martinek eta Urkiditar San Joanek, denak ere Gipuzkoako ohiturari jarraituz.


Irailean eman da erabakia: hemendik aurrera ez dezatela kalean eta usaina sortu dezakeen tokietan larruak lantzeko tresneriarik etxeetan eduki; aurka eginez gero, zigorrak jasango dituztela. Oraingoan, auziaren gastuak ordaintzera bakarrik behar hartu ditu. **B**





**A**ranzadi Ikastolako DBH 2. mailakoak Lleidan, Port-Ainen eskiatzen izan genituen martxoaren 1etik 5era bitartean. Pili Fernandez, Amaia Madinabeitia eta Iñaki Mujika irakasleen laguntzaz, 13-14 urteko 64 ikasle abiatu ziren bertara. Irungo hiru monitore ere izan ziren bergararrekin eta guztiak maila ona erakutsi zuten Port-Ainen. Eskiatzearaz gain, inguruko paraje ederrak ezagutzeko aukera izan zuten eta, nola ez, **Sort** herrian loteria erosteko aukera ez zuten galdu. Jokaturakoa bikoiztu zuten eta, nahiz eta aberats ez bueltatu primeran ibili ziren Lleida aldean.

## Lleidan eskiatzen



## Zaborra protagonista

*Udalako (Arrasate) Ingurugiro Eskolak eta Mankomunitateak* bultzatutako "Zaborraren problematika aztertzen" kanpainaren barruan, **Panta Rbei** antzerki taldeak "Zabor horia, zer da hori?" izenburuko lana eskaini zuen eguenean **Plazan**. DBHko lehen zikloko ikasleei euren ikastetxeetan zuzendutako emanaldiez gain, publiko ororentzat ere antzerki aktuzioak izan dira. Eguenean jende asko bildu zen Plazan eta gurasoek lagundutako gaztetxoak ziren nagusi. Kanpainaren helburuetako bat zaborra birziklatzeak naturaren defentsan duen garrantzia azpimarratzea zen eta hori txikitatik ikastea onena...

## Udal Euskaltegikoak sagardotegian

Udal Euskaltegiko ikasle eta irakasleak (65 lagun inguru) Astigarragako Etxeberria sagardotegian izan ziren joan zen martxoaren 5ean. Egun hotza eta euritsua izan bazen ere, jendeak izan zuen bai berotzeko aukera, hango sagardo, makailao eta dantzak zirela eta... Azkenean, Bergarara itzulitakoan, ezustea: herria zuri-zuri eginda. Hala ere, baten batzuek giroaren hotzik igarri ez eta herrian bertan jarraitu zuten parrandan.







# Korrika Bergaran

**Korrikaren 11. edizioa eguazten gauean iritsiko zaigu**

**"1+1= Hamaika. Zu eta ni euskaraz" lemapean, Korrikaren hamaikagarren edizioa Bergarara iritsiko da datorren eguaztenean, martxoak 24. Euskararen aldeko maratoiak Euskal Herri osoa zeharkatuko du eta 2.250 kilometro egin ondoren martxoaren 28an bukatuko da Donostian. Tarte horretan milaka eskutatik pasako da Juan Gorriti eskulturgilearen lekukoa.**



**B**ergarako Korrika Batzordea duela hilabete hasi zen Korrika etorriko den egunerako antolaketan lanetan. Esan bezala, eguazten gauean helduko da Korrikako hamaikagarren edizioa Bergarara. Osintxura 23:05ean helduko da eta herrira sartzean ibilbidea honako hau izango da: Amillaga, Matxiategi, Oxirondo plaza, Ibargarai (Miguel Altuna institutua), Fraiskozuri, Kruz Gallasategi, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurutzeta, Espoloia, San Antonio eta handik Antzuolako bidea hartuko du Korrikak. Hamar kilometro egingo ditu Korrikak Bergaran eta kilometro bakoitza 40.000 pezetan salduko da. Aurreko edizioetan bezala, kilometroak erostera, beste elkarte batzuekin konpartitzeko aukera egongo da. Kristina Markina herriko Korrika Batzordean ari da lanean eta bere hitzetan, "normalean talde edo kolektibo berberak hartzen dute parte Korrikan eta aurten ere ez dut uste arazorik izango denik kilometroak saltzerakoan. Jendeak interesa izaten du Korrikan parte hartzeko eta eguna hurbildu ahala giroa berotuz doa". Kristinaren iritziz, Korrika gauerdialdera helduak izan dezake eraginik

partaidetzari dagokionean; "hasiera batean piskat beranduago heltzekoa zen baina ordutegia zertxobait aurreratu egin da eta espero dezagun jendea animatzea kalera irten eta korrika egiteko. Badakigu ez dela ordurik onena eta ez dakigu zer nolako erantzuna jasoko dugun. Hala ere, Bergaran, beti primerako harrera egin zaio Korrikari; ea aurten ere beste horrenbeste gertatzen den...". Azkenengo aldiz, 1997ko martxoaren 17an heldu zen Korrika gure herrira, arratsaldeko hirurak aldean, eta eguraldia lagun, jende mordo irten zen kalera egun hartan. Kristina Markinaren arabera, orduan jasotako erantzuna oso ona izan zen.

## KORRIKA KULTURALA

Orain arte egindako lanaren balorazioa eskatzeko orduan Kristinak zera esan digu: "herri mailan, ipuin afaria eta sexuaren inguruko mahai-inguru bat antolatu genituen Korrika Kulturalako programazioaren barruan. Hasieratik bagenekien ez genuela sekulako jendetza erakarriko baina pozik gaude harrera ona izan zutelako bi ekitaldi horiek. Bestalde, martxoaren 6an Arrasaten izan zen kontzertuan uste baino

jende gutxiago izan zen eta egun bereko sagardo eguna, aldiz, guztiz arrakatsua izan zen. Korrika Kulturalak urtetik urtera indar gehiago dauka eta hori poztekoa da".

Herriko Batzordeak antolatutako ekitaldien barruan, gaur, eguena, umendako "klarionada" bat egiteko zen arratsaldeko bostetan Plazan. Nagusien laguntzaz, umeek marrazkiak egiteko aukera izango dute. Korrika heltzen den egunerako, berriz, Korrika Txikia egingo da ikastetxeetako gaztetxoekin 15:00etan Plazan eta 21:30ak aldera Plazan bertan txokolatada egiteko asmoa dago.

## HAMAIKA SEKTORE OMENDU

Aurtengo Korrikako nobedadeen artean, hamaika hitzak euskaraz duen esanahi berezia azpimarratuz, gizarteko hamaika esparru omenduko dira. Orain arteko edizioetan pertsona bat edo bi omendu izan dira eta oraingo honetan, esan bezala, euskarak gizarteko sektore ezberdinetan izan dituen lorpenak nabarmendu nahi dira. Horrela, Korrikak irauten duen bitartean, egun bakoitza sektore bati eskainiko zaio eta sektore bakoitzeko pertsona bat izango



Azkenengo aldiz, 1997ko  
martxoaren 17an heldu zen  
Korrika Bergarara.  
Aurtengo edizioan 10  
kilometro egingo ditu  
euskararen alde-  
ko maratoiak  
gure  
herrian







Bergaran harrera paregabea eskaini izan zaio beti euskararen aldeko jaiari. Goiko argazkian ikasle talde bat duela pare bat urteko edizioan.

Kristina Markinaren iritziz, "normalean talde edo kolektibo berberak hartzen dute parte Korrikan eta aurten ere ez dut uste arazorik izango denik kilometroak saltzerakoan".

da omendua. Besteak beste, honako hauek izango dira Korrikako aurtengo protagonistak: irratigintza (Euskal Herria irratia), literatura (Maiatz kolektiboa), helduen euskalduntze alfabetatzea (Maitane Aragues), zientzia mundua (Pedro Miguel Etxenike), irakaskuntza (Laudioko ikastolako sortzaileak), herriak eta herritarrak (Arantza herria), lan mundua eta zerbitzuak (Etxepe enpresa eta Mendia optika), unibertsitatea (Joxerra Etxebarria irakaslea) edota Kirola (Jose Angel Iribar). Omenaldi bakoitzean omenduak leku berezia izango badu ere, partehartzaileak ez dira bakarrik omenduak izango, sektore horretan lan egindako hainbat lagun baidira.

#### GIZARTEAREN KONPROMEZUA

Igor Eguren Gipuzkoako AEKko prentsa arduradunak adierazi digunez, "aurtengo Korrikako mezuak bat egiten du Kontseiluak "Bai euskarari: XXI. mendeko akordioa" kanpainan zabaldu zuenarekin, gizarteari konpromezua eskatzean alegia. Gizarteak ahalegin berezi bat egitea beharrezkoa da konpromezu zehatzak hartu eta euskararen normalizaziorako urratsak eman ditzagun. Hori dela eta, aurtengo edizioan kilometroak erosten dituzten talde, enpresa edota kolektibo guztiei konpro-

mezu zehatzak har ditzaten eskatuko diegu: enpresa baten kasuan adibidez, enpresako errotuluak euskaratzeko edota beraien seme-alabak euskarazko eremuan matrikulatzeko... Konpromezua hartzea behar-beharrezkoa da euskararen garapena lortzeko. Korrika 11 honetan omendu ditugunak konpromezuaren eredu dira eta horregatik izan dira aukeratuak. Euskara herritarren konpromezuari esker iritsi da datu goen lekura eta guztion konpromezua behar du normalizazio osora iristeko.

Bai euskarari kanpainarekin gertatu zen bezala, Euskal Herrian bizi dugun egoerak Korrikaren arrakasta ekarriko du Egurenen iritziz; "Bai euskarari kanpainak ez dakit zer nolako eragina izango duen Korrikan baina badakit kanpaina hori oso giro berezian suertatu zela eta nik uste dut giro horrek, bizi dugun egoera berriak, Korrikaren arrakasta ekarriko duela". Duela bi urteko edizioa guztiz arrakastatsua suertatu zen eta bide beretik jarraitzea da AEKko arduradunaren asmoa; "hamargarren edizioan 500.000 lagun inguruk hartu zuten parte eta eguakitzetik hurrengo domekara bitartean Euskal Herri osoa zeharkatu bitartean antzeko partaidetza lortuko dugula uste dugu. Jendearen jarrera txalotzekoa da". 1980an martxan jarritako ekimen honek indartsu jarraitzen du oraindik; "ia 20 urte igaro dira Oñati eta Bilboren arteko lehen edizio hartatik baina, zoritxarrez, Korrika beharrezkoa da oraindik. Bi urtetik behin euskararen alde horrenbeste jende mugitzea izugarria da eta euskara kalean jartzeko era bitxia da Korrika. Berriz ere euskarak duen indar fisikoa erakutsiko da kalean eta asmoa euskarara Euskal Herriko txoko guztietara eramatea da. Hamar egunetan zehar, Korrika euskararen aldeko etengabeko karrera izango da. Lekukoa eskuz aldatzean, euskararekiko jarrera positiboa gizarteratzen da eta gaueko ordu txikietan jendea txandala jantzi eta euskararen lekukoak aurrera egitea benetan hunkigarria da". **B**

**"Bai euskarari kanpainarekin gertatu bezala,  
Euskal Herrian bizi dugun egoera berriak Korrikaren arrakasta ekarriko du"**

**IGOR EGUREN, AEK-KO GIPUZKOAKO PRENTSA ARDURADUNA**





Artekalea 1, BERGARA.

**Pizza  
aukerarik  
zabalena!**

**ENTSALADAK**



ENTSALADA MISTOA. 575  
ARROZ ENTSALADA. 600  
OILASKO ENTSALADA. 625  
PASTA ENTSALADA. 600  
GANBA KOKTELA. 650

**PIZZAK**



MARGARITA (Oreganoa, piperbeltza, albaraka). 750  
TIPULA. 850  
FUNGHI (Txanpinoiak). 950  
BEGETALA (Kalabazina, tipula, esparragoa). 950  
PEPERONI (Pikillo piperra, berakatza). 1100  
ROKEFORT. 925  
4 GAZTA (Gazta nahasketa). 1050  
NAPOLI (Antxoak, olibak). 925  
TONNO (Atuna). 950  
DI MARE (Ganbak, antxoak, muskulluak, atuna). 1050  
IZOKINA (Izokin ketua, tipula). 1100  
PROSCUITO (York urdaiazpikoa). 975  
MEXIKARRA (Okela pikatuarekin eta berakatzarekin). 1025  
4 STACCIONE (York urdaiazpikoa, alkatxofak, txanpinoiak). 1050  
BOLOGNESA (Okela pikatua). 1025  
EULALIA (Piper berdeak, hirugiharrea). 1050  
BASERRI (Txorizoa, hirugiharrea, arraultza). 1050  
ARTEKALE ( Okela pikatua, arraultza, pikillo piperra). 1050  
BAKAILAOA. 1100  
TROPICALA (Piña, York urdaiazpikoa). 1050

**EGUNEROKO  
MENUA  
ere badaukagu**

**Asteburuetan  
etxez-etxeko zerbitzua**

**943 76 72 00**

**...eta gainera, freskagarriak,  
garagardoa, zukuak  
eta postreak!**

**PASTAK**



SPAGHETTI BOLOGNESA. 875  
SPAGHETTI CARBONARA. 875  
SPAGHETTI MINA BERAKATZAREKIN  
ETA PIKANTEAREKIN. 875  
FUSILLI ROSSA. 900  
TAGLIATELLE. 900  
RIGATONI 4 GAZTA. 900  
UKONDOA ESPINAKA SALTSAKIN. 900  
OKEL eta BARAZKI RAVIOLIAK. 900  
NIDOS AL PESTO. 875  
LASAGNA. 950  
BARAZKI KANELOIAK. 900  
KALABAZIN BETAOK. 900  
ARRAIN LASAGNA. 950

Ebaki hemendik eta eraman beti aldean edo itsatsi zure hozkailuan!



**estetika FLOREN masajea FLOREN depilazioa FLOREN solariuma**

**FLOREN**

ILEAPAINDEGIA-EDERTZE ARETOA

**emaztegaiendako lan bereziak**



Matxiategi plaza 7, 1-A. Telefonoa: 943 76 49 51





# Labegaraietako futbito txapelketa

## partiduak

### EGUAKITZEAN BARRUAN

09:00: Txipiron-Artusamak

10:00: Amozkibar-Pinturas Bergara

11:00: Iganekoak-Ion Autoak

16:00: Tom Cat-Uve Bikoitza

18:00: Etengabe-HHH

19:00: Bildurbarek-Pagomendi

Amozkibar

Iganekoak

P. Bergara

HHH

Pagomendi

Etengabe

### ZAPATUAN BARRUAN

17:00: Xurruapak-Usoa

18:00: FAC-Bayer

19:00: Ion Autoak-Buya

20:00: Ufala-Urrutxurtu

FAC

Ion Autoak

Ufala

Buya

### DOMEKAN BARRUAN

09:30: Txipiron-Ezinleike

10:30: Sirimiri Eri-Artusamak

11:30: Buya-Agiñaspi

12:30: A Ze Flaxa Etxagi-Errotagain

Sirimiri Eri

Agiñaspi

Errotagain


Buya

## argi!

### Pinturas Bergara

Azken jardunaldian, Pinturas Bergara taldea ez zen partidua jokatzera agertu eta, ondorioz, Antolaketa Batzordeak hiru puntu kendu dizkio. Bestalde, liga amaitezko bi partidu gelditzen direnean, Antolaketa Batzordeak kopako partiduen zozketa apirilaren 6an, Kultur Etxean egingo dela aurreratu nahi du. Interesatuta daudenak, bertara agertu beharko dira.

## jokoz kanpo



ASIER MAURE  
Azpeitxi jatetxea

**G.** Txapelketan bikain ari zarete.

**E.** Hasieran normal samar ibili ginen. Baina orain ondo ari gara jokatzeko eta gure aldeko emaitzak lortu ditugu azkenaldian. Bai, oso gustora gabiltza.

**G.** Zure ustez, zer moduzko maila dago txapelketan?

**E.** Guztiok ezagutzen dugu elkar eta jendeak gustora jokatzeko du. Maila parekatua eta ona dagoela uste dut

**G.** Zein postutan jokatzeko duzu?

**E.** Azken aldian lesioak jota nago eta ezin dut jokatu baina normalean atzean jokatzeko dut

**G.** Taldean koadrilakoak zabilzate.

**E.** Koadrilako batzuek Azpeitxin jokatzeko dugu eta beste batzuek Agirrebeña taldean.

**G.** Azken hauek ez dute zuena bezalako zorzea izan.

**E.** Jokatzeko gogoia dago eta koadrila handia garenez... Azken hauek hirugarren mailan daude, erdialdean uste dut.

**G.** Zein da taldeko jokalaririk nabarmena?

**E.** Guztiok ondo gabiltza. Jokalaririk batzuek beste batzuek baino hobeto jokatzeko dute baina, orokorrean, taldea orekatuta dago.

## gora eta behera



### Gol eta ezusteko ugari

Golei dagokionez, Jakina PTK 11 gol, Txipironen 10 gol eta Komando Piperrak 8 gol egitea lortu zuten. Txipironen azken postuan izanik, 10 gol egin zituen Uve Bikotzen kontrako partiduan. Bestalde, Bildurbarek-ek, lehen mailan 2 sailkatuta zegoen Errotagain taldeari irabazi zion.



### Mo(ko)lotov

Mo(ko)lotov talde antzuolarra bigarren postuan dago baina azken jardunaldian ez zuen jakin erditik behera dagoen Ion Autoak taldeari irabazten.

## emaitzak

Amiltox -La Juve	2-5
HHH-Komando Piperrak	3-8
Agirrebeña Jatetxea-Jakina Patxaran Team	4-11
Artusamak-Xurruapak	4-3
Irubide Jatetxea-Ari Ari	1-3
Urrutxurtu-Moskis	4-3
Ezinleike-Fac	4-4
Ion autoak Mo(ko)lotov	5-3
Bayer-Sirimiri Eri	6-1
Usoa-Arbe Kirolak	5-4
Matxakategi-Etengabe	4-4
Errotagain-Bildurbarek	1-3
Mongatxurak-A Ze Flaxa Etxagi	1-1
Bar Canalejas-Jauja OH Zerezos	5-3
Pagomendi-Shaktale	6-4
Tom Cat Argandolas-Guadalest	2-1
Uve Bikoitz-Txipiron	1-10
Patatus-SLP	1-6
Pinturas Bergara-Buya	0-3
Agiñaspi-Amozkibar	1-4

## sailkapenak

### Lehen maila

	P	J
1. Azpeitxi Jatetxea	34	16
2. A Ze Flaxa Etxagi	30	16
3. Errotagain	29	16
4. Pagomendi	27	17
5. Orzi	23	15
6. Bar Canalejas	23	17
7. Mongatxurak	18	16
8. Bildurbarek Opel/Lam	15	16
9. Jauja OH Zerezos	13	17
10. Shaktale	13	17

### 2. maila

	P	J
1. FAC	22	10
2. Bayer	22	9
3. Artusamak	18	9
4. Xurruapak	17	10
5. Arbe Kirolak	15	10
6. Tom Cat Argandolas	14	10
7. Ezinleike	13	10
8. Sirimiri Eri	11	9
9. Guadalest	7	10
10. Usoa	7	10
11. Txipiron	5	9
12. Uve Bikoitza	4	8

### 3. maila

	P	J
1. Urrutxurtu	23	9
2. Moskis	19	9
3. Ufala	16	8
4. Irubide Jatetxea	16	9
5. Ari Ari	16	9
6. Jakina Patxaran Team	16	9
7. Agirrebeña Jatetxea	8	9
8. Komando Piperrak	8	9
9. Etengabe	6	9
10. Matxakategi	5	8
11. HHH	3	9

### 4. maila

	P	J
1. Amozkibar	20	9
2. Mo(ko)lotov	15	9
3. SLP	15	9
4. Agiñaspi	13	8
5. Patatus	12	9
6. Buya	12	7
7. Ion Autoak	11	9
8. La Juve	11	10
9. Iganekoak	7	9
10. Amiltox	6	9
11. Pinturas Bergara	5	9



## kronikak


**Futbola**  
**Hiru puntu**  
**falta nagusi**  
**izateko**

Preferente mailakoek In-  
txaurrondoren aurka garai-  
pena lortu bazuten ere, le-  
hen mailako jubenilak ez zi-  
ren gutxiago izan. Gorka  
Zelaia eta Mariano Jauregi-  
ren mutilek Mundaiz taldea-  
ri 9 gol sartu zizkioten. Az-  
ken emaitza, 9-2koa izan  
zen.

Zapatu iluntzean jokatu  
zen partidua ikuskizun ga-  
lanta eman zien bertan bil-  
duta koei, batez ere lehen  
zatian. Bigarren zatia jokala-  
ri guztiek zelairatzeko apro-  
betsatu zen. Jubenilek, liga-  
ko taldeen artean gol  
gehien egitea lortu dute,  
guztira 102 gol hain zuzen.  
Horrela, Bergarakoak bigar-  
ren daude sailkapenean,  
lehen sailkatuarengandik  
hiru puntutara.


**Eskubaloia**  
**Iraundik**  
**atsedena**  
**apirilerarte**

Bergara Iraundi taldeak  
25-23 galdu zuen Elgoiba-  
rren kontrako partiduan. Le-  
hendabiziko zatian berdin  
samar aritu ziren, bi taldeek  
pareko maila erakutsi bai-  
tzuten. Dena dela, Bergara-  
ko taldearen lasaitasuna el-  
goibartarren probetxurako  
izan zen.

Hasieran gol bakarreko  
aldea bazegoen ere, poliki-  
poliki elgoibartarrek hiruko  
aldea lortu zuten markagailu-  
an, eta azkenean garaipena  
eskuratu zuten. Bergara-  
ko jokalarien artean, Aritz  
Mazkarian atezaina izan zen  
nabarmendu zena. Partidu  
honekin, Lijoren mutilek li-  
ga amaitu dute eta apirilaren  
11n Kopa jokatzeko hasi-  
ko dira. Ordurarte entrenatu  
besterik ezin egin.


**Saskibaloia**  
**Nesken**  
**ustegabeko**  
**garaipena**

Jubenil mailako neskek,  
ez zuten Loiolako Grosen  
aurkako partidua behar be-  
zala hasi. 12-2 joan ziren  
galtzen eta lehen zatia zazpi  
saskiratze gutxiagorekin  
amaitu zuten. Lehen zatiko  
9. minutuan bergararren tal-  
deko jokalaria bat kanpora-  
tua izan zen bost falta izate-  
agatik eta harrez gero, tal-  
dea sei jokalarirekin gelditu  
zen. Dena dela, bigarren za-  
titan bergararrak partiduari  
buelta eman zioten. Jaurti-  
keta libre ugari egitea lortu  
eta markagailuan aurre har-  
tu zuten partidua 49-52 ira-  
baziz. Jokalari nabarmena-  
tarikoa Maite Usabiaga izan  
zen. Maitek 22 puntu egin  
zituen. Bestalde, Bergarako  
jokalaria batek sudurra hautsi  
zuen partiduan.

## KARTELDEGIA

**FUTBOLA****Bergara-Aitzgorri**

Infantil maila

Eguakitza. 10:00

Ipintza futbol zelaia

**Bergara-Antiguoko**

Lehen mailko kadeteak

Eguakitza. 11:30

Ipintza futbol zelaia

**Bergara-Urnieta**

Lehen mailako jubenilak

Eguakitza. 15:30

Ipintza futbol zelaia

**Bergara-Almen**

Neskek

Eguakitza. 17:30

Ipintza futbol zelaia

**SASKIBALOIA****Bergara-La Salle**

Jubenil maila

Zapatua. 17:30

M. Lagundia

**Bergara-Irurok**

Kadete maila

Domeka. 10:30

M. Lagundia

**Ganbara BKE-Athletico SS**

Jubenil neskek

Zapatua. 16:00

M. Lagundia

**Bergara-  
Saskibaloiairen algunak**

Kadete neskek

Domeka. 12:15

M. Lagundia

**PILOTA**

DEBA ARROKO TXAPELKETA

**Bergara-Aretxabaleta**

Martitzena. 19.30

Udal Pilotalekua

**ARETO FUTBOLA****Lagunak-Goierri K.E**

Neskek

Eguakitza. 17:00

Labegarieta Kiroldegia

**IGOR LARRAÑAGA/ Futbolaria****"Ikusleen babesa behar dugu"**

**Dagoeneko hamahiru urte**  
**inguru egin ditu Igor Larra-**  
**ñagak BKEan eta une hone-**  
**tan preferente mailako tal-**  
**dean ari da. Liga amaitzeko**  
**hamar jardunaldi falta dire-**  
**nean, preferente koek hiru-**  
**garren maila gertu ikusten**  
**dute.**

**G.** Zein da taldea sailkapeneko  
2. postuan izatearen arrazoia?  
**E.** Gehienok urte askoan gabil-  
tza batera eta ondo ezagutzen  
dugu elkar. Bakoitzaren jokoa  
ondo ezagutzen dugu eta ho-  
rrek asko laguntzen du zelaian.  
Bestalde, taldean giro ezinho-  
bea dago eta entrenadorea lan  
ona egiten ari da. Borroka egi-  
ten duen taldea gara. Lana guz-

tion artean egiten dugu. Talde-  
ak ez du jokalaria konkretu baten  
beharririk eta horrek abantaila  
ematen du.

**G.** Hirugarren mailara igotzeko  
aukerarik ikusten duzu?

**E.** Bai, bai. Hamar partidu gel-  
ditzen dira eta Aloiñak lau pun-  
tuko aldea besterik ez digu  
ateratzen. Zortea behar  
dugu baina aukera han-  
diak daude. Hirugarren  
mailan izateko espe-  
rantza handiak ditu-  
gu. Bada 17 hila-  
bete ez dugula  
etxeko parti-  
durik galtzen  
eta ez dugu  
galtzeko as-  
morik.

**G.** Zein izan da preferentean  
izatean igarritako aldaketa na-  
barmenena?

**E.** Talde gogorren kontra jokatu  
dugu. Erregionaleko partidue-  
tan gol ugari egiten genuen.  
Preferente mailan, berriz, azken  
sailkatuaren kontra ere larri ibi-  
li zaitezke.

**G.** Taldearentzat zer eska-  
tuko zenuke?

**E.** Jarraitzaileen aldetik-  
partiduetan babes han-  
diagoa jasotzea eta  
Aloiña Mendi tal-  
deak, jokatzeko  
gelditzen zaiz-  
kion partidu  
guztiak gal-  
tzea, eskatuko  
nuke.





# Gorlako Igoerak zilarrezko ezteiak betetzen ditu

## Ehun txirrindulari inguru izango dira irteeran

Eguakitza jai eguna dela aprobetxatuz, aitzaki paregabea izango dugu Gorlako XXV. Txirrindulari Igoera ikustera joateko. Tradizio bihurtu den lasterketan, seguraski, Unamuno, Mendizabal eta Lazpiur bergararrak ikusteko aukera izango dugu. Dena dela, partaide kopurua egun berean ezagutuko da.

Lasterketa San Martin plazatik abiatuko da. Eguardiko 12:00etarako bateran on irteera iragarrita dago; amateurrak edo afizionatuak, berriz, 12:30etan hasiko dira Gorlako bidea igotzen. Guztiek, Bergara eta Gorla artean dauden zortzi kilometro eta erdi egin beharko dituzte. Bidean aurkituko dituzten gune aldapatsuenak, Elorriaga, Amesti eta Gorrizekoak dira. Azken hauek, % 8'5eko malda dute. Gogoratu beharra dago autoek goizeko 11.00etatik aurrera bidea itxita aurkituko dutela.

Ohiturari eutsiz, Bergarako Txirrindulari Elkatea izan da antolatzaile lanetan



lazio edizioan bildutako txirrindularien lasterketa hasi aurreko irudia.

ibili dena. Gurutz Arrietak adierazi digunez, "dagoeneko 25 urtez ari gara Gorlako Igoera prestatzen. Urte asko dira eta datorren urtean Lo-

katzakoak izango dira arduratu hau hartuko dutenak. Gorlako Igoera prestatzeak denbora luzea eta lan handia eskatzen du. Jendeari la-

guntza eskatu behar zaio sariak emateko eta egunetan bertan izateko. Gogorra egiten da beti eskatzen egotea baina zorionez jendea prest



Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.  
Tf. 943 76 71 19



**GAZTELU**  
**BURDINAKI DENDA**

Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA



**INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA**

Bergara / Arrasate / Elgoibar  
**Telesforo Aranzadi 2 behea**  
943 76 21 80 / 943 76 06 37




azaldu da. Bestalde, 25 urte-  
etan zehar sarrera 100 peze-  
tatan ipini dugula gogoratu  
beharra dago. Prezioak gora  
egin duten arren, guk ez  
dugu salneurria aldatu.

Tradizio handiko laster-  
keta da Gorkakoa. 25 urte  
hauetan irabazle izan dire-  
netako gehienak profesio-  
nalak izatera iritsi dira. Al-  
berto Fernandez (1975), Ju-  
lian Gorospe (1981), Pello  
Ruiz Cabestany (1982), Jose  
del Ramo (1983), Xabier  
Lazpiur (1990), Iñigo Cuesta  
(1992), Santi Blanco (1994),  
Klaus Möller (1995) besteak  
beste, izen ezagunak dira  
dagoeneko. Une honetan,  
errekorra Juan Manuel Ga-  
rate iazko irabazleak dauka.  
San Martin plazatik Gorkara  
20 minutu eta 33 segundu-  
tan igotzea lortu zuen.

#### XABIER LAZPIUR

Bihar Gorlan izango diren  
txirrindularien artean, Xa-  
bier Lazpiur angiozartarra  
azpimarratu behar dugu.



ARTXIBOA

**"Gorkako  
Igoerara  
hurbiltzen diren  
txirrindulariak  
ondo prestatuta  
eta irabaztera  
etortzen dira"**

XABIER LAZPIUR

Xabierrek Gorkako Igoera  
1990. urtean irabazi eta ur-  
tebetera profesioaletan hasi  
zen. Bost urtetan zehar  
Baneston eta Euskadin ibili  
ondoren, bizkarrean izan  
zuen lesio batengatik txi-  
rrindularitza laga behar izan  
zuen.

Aurten, afizionatueta  
berriz ere hastea erabaki du  
Xabierrek. Kaiku taldean ari  
da eta berak adierazi digu-  
nez, Gorla ahalik eta hobeto  
igotzen saiatuko da. "Jada-  
nik hiru urte dira txirrindu-  
laritza utzi nuela eta ez ditut  
behar besteko entrenamen-  
duak egin. Gorkako Igoerara  
hurbiltzen diren txirrindula-  
riak ondo prestatuta joaten  
dira eta guztiak erakusten  
dute irabazteko gogo. Mai-  
la handia dago txirrindula-  
rien artean. Normalean Gor-  
lako Igoeran parte hartzen  
duten txirrindulari asko pro-  
fesionalak izaten bukatzen  
dute. Lasterketa motza bai-  
na gogorra dela uste dut.  
Hogei minututan ahalik eta  
azkarren joan behar da. As-  
teburuan Oteiza eta Lizarra-  
ko lasterketetan ere izango  
naiz eta ez dut uste indar  
guztiak Gorlan lagako ditu-  
danik".

Profesional izatea zer  
den badaki Xabierrek. Txi-  
rrindularitzarekiko duen za-  
letasunak, berriz ere bizikle-  
ta hartzera animatu du. Be-  
rak esan digunez, bizikleta  
gainean afizionatuen probe-  
tan parte hartzearekin nahi-  
koa dauka.

#### SARIAK

Hiru sari nagusi izango dira  
Gorkako Igoeran. Amateu-  
rren eta beteranoen probe-  
tako garaileek bana era-  
mango dute eta bestea, ber-  
garar onenak eskuratuko  
du. Bestalde, beteranoen ar-  
tean, Bergarako denda eta  
tabernei esker, hainbat sari  
banatuko dira. Guztira 19  
sari. **13**

## Agirre hirugarren Udaberri Sarian

**Ander Agirre** Ber-  
garako txirrindulariak bi  
lasterketa izango ditu  
asteburu honetan.  
Eguakitzean Azpeitia-  
raino hurbilduko da eta  
domekan Oreretako  
lasterketa jokatu be-  
harko du. Anderrek, pri-  
meran hasi du jubencil  
mailako denboraldia.  
Duela bi aste Eibarren  
jokatu zen XXI. Udabe-  
rri sarian hirugarren postua lortu zuen. Iaz denboraldi bikaina  
egi zuen Anderrek Sumofic taldean eta, ikusitakoaren arabera,  
aurten ere, denboraldi osoan zehar emango du zer esan.



### Shotokaneko karatekak bikain Soraluzen

**Joan zen** domekan  
Shotokan taldeko kara-  
tekek emaitza bikainak  
lortu zituzten Soraluze-  
ko I. karate sarian.  
Ugaitz Iruretagoienak  
benjamin mailan eta  
Markel Larrañagak ale-  
bin mailan lehen saria  
eskuratu zuten. Nerea  
Marzok aurre benjami-  
netan eta Kepa Odriozol-  
ak benjaminetan biga-  
rren saria lortu zuten eta  
azkenik, infantil mailako  
Oier Tolak hirugarren  
saria eraman zuen.

### Elkoro nagusi Zezeagaren kontra

**Bergara** eta Elgeta-  
ko pilotariek partidu bi-  
kaina egin zuten dome-  
kan. Zorteak Aitor Elko-  
roren alde egin bazuen  
ere, Jose Mari Zezeagak  
primerako jokoak eraku-  
tsi zuen partidu osoan  
zehar nahiz eta azken  
zatia uste bezain ondo  
ez atera. Bi pilotariek bi-  
kotekide gazteekin joka-  
tu arren, txapelketa bi-  
kaina egin dute. Ea da-  
torren urteko txapelke-  
tako finalean ere ikusten  
ditugun. Zorionak bio!

## ESKOLA KIROLA

Asteburua luzea dela kontutan  
hartuta, kadete mailako are-  
to futboleko partidua besterik  
ez da izango. Partidua, **La Sa-**

**lle D** eta **Mariaren Lagun-**  
diaren artean jokatu da, za-  
patuan, goizeko 11:00etan Ei-  
barko La Salle ikastetxean.



**1. ETXEBIZITZAK**

**SALDU**

San Lorentzon pisua salgai. 943 76 21 63.

Pisu amueblatua Zubiaurren. 943 76 48 05.

Fraiskozurin pisua salgai. 943 76 15 40.

San Lorentzon pisua salgai. 943 76 48 39.

Masterreka. 943 76 17 49.

Elorregi. 943 76 07 47.

Antzuola. 943 76 19 21.

Osintxu. 943 76 49 74.

Martoko. 943 76 37 21.

Pisua salgai Zumarragan. 943 76 23 84.

**ERRENTAN EMATEKO**

Apartamendua Zarautzen (abuztuan ez). 943 76 42 05.

Laredo-plaian, Aste Santuan. Pizsinarekin. Deitu 943 76 13 86 telefonora.

**ERRENTAN HARTZEKO**

Pisua hartuko nuke alo-

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!**

**1. ETXEBIZITZAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Etxe konpartituak  
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**3. LOKALAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**4. LANA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**6. IBILGAILUAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**8. DENETARIK**

Saldu  
Erosi  
Eman  
Hartu  
Trukatu  
Galdu  
Aurkitu  
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**

Agurrak  
Kontaktuak  
Deiak  
Bestelakoak

kairuan. 943 85 36 99.

Bizpahiru hilabeterako pisua hartuko genuke. Deitu 617 90 78 17 telefonora.

Pisua hartuko genuke alokairuan. 943 76 26 82 /943 76 57 34.

**ETXE KONPARTITUAK**

Jendea behar da pisua konpartitzeko Bergaran. Deitu 943 76 71 93 telefonora.

Gela nahi nuke pisu kon-

partituan. 943 27 77 80.

**2. GARAJEAK**

**SALDU**

Garajea salgai Artzamendin. 943 76 06 25.

Garajea salgai Ibagarain. 943 15 15 81.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Garajea salgai Matzeurrekan. 945 23 48 07.

Garajea salgai Aranerre-

kan. 943 76 28 07.

K.Gallastegi. 943 76 27 61.

B. Laskurain. 943 76 18 85.

Zubiaurre. 943 76 08 89.

Ibargarai. 943 76 72 17.

**ERRENTAN EMATEKO**

Garajea alokairuan Poligonoan. 943 76 32 58.

Garajea alokairuan Ibagarain. 943 76 23 53.

Zubiaurre. 943 76 23 53.

**ERRENTAN HARTZEKO**

Garajea alokairuan hartuko nuke Zubietan. 943 76 47 50 (Jabi).

Garajea alokatuko nuke. 943 76 05 17.

**3. LOKALAK**

**ERRENTAN EMATEKO**

Lokala S. Pedro kalean. 943 76 10 39.

Lau gelako lokala Koldo Eleizalden, bulegotarako. 943 76 58 91.

Taberna-jatetxea alokairuan. 943 76 41 71 / 76 37 80 (gauetz).

**4. LANA**

**ESKAITZAK**

Erizain titulatuak gainak, edadetuak edo haurrek zainduko lituzke. 943 76 37 99.

Emakumeak etxeko lanak edo nagusiak zaindu. 943 76 46 48.

Etxeko lanak edo haurrek zaindu. Esperientzia. 943 76 72 32 (Anai).

Neskak, goizez, haurrek zaindu edo etxeko lanak. 943 76 46 07.

Neska edozein lanetarako prest. 943 76 35 38.

Arratsaldez lan egingo nuke. 943 76 52 39.

Jaiegunetan eta aste-bukaeretan tabernari lanak egingo nituzke. 943 76 36 14 (Igor).

Neskak etxeko edo sukaldari lanak egingo lituzke. 943 76 70 15.

**ESKAERAK**

Pertsona edadetu bat

## Txandakako enpresa injinerutza

**Enpresariekin lanean garatutako lanbide proiektua  
Lan kontratua lehen egunetik**

### Bilera informatiboa

- Datorren martxoaren 26an, ostirala, bilera informatiboa izango da prestakuntzaren ezaugarriak eta sarrera baldintzak azalduko direlarik.
- 18:30etan Makina Erremintaren Institutuko instalazioak bisitatu dira eta 19:00etan bilera informatiboa hasiko da.

■ Makina Erremintaren Institutua  
San Roke auzoa 1 20870 Elgoibar

■ Tf. 943 74 41 32 Faxa: 943 74 41 53  
E-mail: ingenieria@fmh.es

■ Ordutegia: 8:00etatik 13:00etara  
eta 14:30etatik 17:30etara



cesi aquitaine  
poitou-charentes



zaindu eta etxeko lane-  
tarako emakumea be-  
har da. 943 76 39 61.

Senar-emazte edade-  
tuak zaintzeko espe-  
rirentziadun pertsona  
behar da. 629 26 39 45  
(Konbi).

Urtaillean egun erdiz  
eta abuztuan egun osoz  
neska behar da etxeko  
lanetarako.  
943 76 22 39 (Miren).

Goizez etxeko lanak  
egiteko emakumea  
behar da. Komenigarria  
autoduna. 943 76 27 04  
(19:00etatik aurrera).

### 5. IRAKASKUNTZA

#### ESKAINTZAK

OHO eta BBB klaseak.  
943 76 33 26.

Ingeles klaseak.  
943 76 25 79 (Nuria).

Majisteritzan diploma-  
tuak klaseak ematen  
ditu. 943 76 10 17 (Rosa).

Ingenieritzan diploma-  
tuak OHO eta BBBko  
klaseak ematen ditu.  
943 76 70 44.

Majisteritzako ikasleak  
UHOko klaseak ematen  
ditu. 943 76 37 94.

### 6. IBILGAILUAK

#### SALDU

Yamaha 250 cc. moto-  
rra, beltza eta kroma-  
tua. 943 76 28 92.

Citroen BX egoera one-  
an. 943 76 29 79 (Ion).

Golf GTI kotxea salgai.  
6 urte, egoera onean.  
608 77 17 32.

Ford Orion 1.6 Ghia. Ai-  
re egokitua. Kilometro  
gutxirekin. 943 76 23 12.

Honda CR motorra sal-  
gai. 250 cc. 9 urte.  
943 76 15 34 (Asier).

Ford Fiesta 1300 kotxea  
(SS-W) prezio onean  
salgai. 943 76 63 29.

Renault Super5 (SS-AB)  
kotxea egoera onean  
salgai. 943 79 68 75.

Honda NSR 80 motorra  
salgai. 943 76 31 52.

Aprillia Klimber motorra  
salgai. 943 76 07 28.

### 7. ANIMALIAK

#### SALDU

Ardi txakurkumeak  
(arrak eta emeak).  
943 81 56 20.

Boxer txakurkumeak  
salgai. 943 76 40 73.

Hamsterkume indioak  
salgai. 943 76 43 70.

### BESTELAKOAK

Bi artzai txakurkume  
opari. 943 76 35 58.

### 8. DENETARIK

#### SALDU

Opera eta kamara musi-  
ka CD bildumak salgai.  
943 76 58 05 (Juanje).

Trabesiako eskiak sal-  
gai. 943 79 06 33.

Altzariak salgai, berri-  
berriak. 619 80 26 06.

Berogailua-akumulado-  
rea salgai. 943 76 44 19.

Errepideko bizikleta (8-  
12 urtekoentzat).  
943 76 72 17.

Teknigrafoa. 943 76 02 12.

Jaunartzeko bi traje  
(marineroa eta neskati-  
larena). 943 76 14 70.

Jaunartzeko trajea sal-  
gai. 639 93 68 41.

Bi bizikleta egoera one-  
an salgai. 943 76 13 53.

Espasa Calpe hiztegi-  
entziklopedikoa.  
27 tomoko bilduma.  
943 77 05 95 (Jacinto).

Kalendore termo berri  
bat saldu nahi nuke.  
943 76 30 83 (Juli).

Ohe artikulatua. 90  
zm.koa. 943 76 20 90.

### EROSI

Singleak eta LPak eros-  
ten ditut. 943 52 65 77.

### GALDU


Bi belarritako desberdin  
galdu ditut, zilarrezko-  
ak, Toki Eder eta Bolu  
artean. 943 76 52 39.

Giltza batzuk galdu dira,  
Festinako giltzakoare-  
kin. Deitu 943 76 00 56  
telefonora.

### BESTELAKOAK

Aterkinak konpontzen  
dituen norbaiten berri  
izan nahi nuke, aterkina  
konpontzeko.  
943 76 52 39 (Gema).

Egunero, 14:30etan, Zu-  
marragara kotxez joa-  
ten den norbaiten berri  
izan nahi nuke.  
943 76 17 62 (Miren).



# Langai

Euskal Lan Zerbitzua

**ELEKTRIZITATE  
LAGUNTZAILEA**  
Deba Garaia. 15495/3

**ELEKTRONIKOA**  
Plentzia-Mungia.  
16690/3

**INFORMAZIO-  
AZAFATAK**  
Lasarte. 17151/1  
Errenteria. 17152/4  
Donostia. 17153/2  
Irun. 17154/2  
Oiarzun. 17654/1

**KOMERTZIALAK**  
Goierri. 17512/1  
Ibai eskuinaldea.  
17694/1  
Laudio. 17699/2

**TABERNARIA**  
Bilbo. 16364/2

**GALDARAGILEAK**  
Bilbo. 16643/5

**KALITATE  
KONTROLERAKO  
INSPEKTOREA**  
Santander. 17429/1

**TORNULARIA**  
Goierri. 17652/2

**ADMINISTRARI  
LAGUNTZAILEA**  
Arabar Lautada.  
17658/3

**INFORMATIKA  
TEKNIKARIA**  
Tçiosa. 16097/3

**SUKALDARI  
LAGUNTZAILEA**  
Bilbo. 16365/2

**TROKELGILEA**  
Zumarraga. 16940/4

**ELEKTRIZITATE  
MEKANIKARIA**  
Bilbo. 17019/2

**Lan eskaintza hauetakoren bat  
interesatzen bazaizu,  
erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta  
egukizetan 9:00etatik 13:00etara.  
Telefona: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

ARROZLAN MEKANIKOAK  
SUKALDEKO ARMAIRUAK  
HORMA ARMAIRUAK  
ATEAK, eta abar  
TARIMAK-PARKETAK  
NEOPRENOZKO JUNTADUN  
EGURREZKO LEIHOAK  
PVCzko LEIHOAK

Urteaga 20 ☎ 76 11 73  
Erakusketa: Bidekurutzeta 38

**iRUDI**  
Erlojudenda  
Bitxitegia  
Ibargarai 2  
943 6 51 65

ezpeleta

Ostalaritzarako  
ehungintza.

Ostalaritza eta egoitzetarako  
mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara  
Tf. 943 76 28 77/Tf. eta faxa: 943 76 17 09

Trajearen hamabostaldia

Firma eta kolore askotakoak

15.000 pezetatik aurrera!




MARGA  
jantzidenda

San Pedro 20, Bergara. Tf. 943 76 05 37

POL-POL

Taberna

☎ 943 76 07 78





# Oliver!: Orfeoiaren musika ikuskizuna ia prest

## Muntaiari buruzko egunkaria banatu berri du Bergarako Orfeoiak

**"Oliver!" Bergarako Orfeoia prestatzen ari den musika antzerki ikuskizuna aurkezteko gero eta gutxiago geratzen da. Maiatzaren 8an estreinatuko da Udal Pilotalekuan eta Orfeoioak jo eta ke ari dira lanean.**

Charles Dickens-en "Oliver Twist" nobelan (1837) oinarritutako "Oliver!" ikuskizunaren gaztelarazko bertsioa landu duen bakarra Madrilgo Colegio Salesianos, Atochako antzerki taldea da eta eszenografia, atrezzo eta jantziak laga dizkiote madrildarrek Orfeoiokei. Euskarazko bertsioaren musika zuzendaria David Azurza izango da eta eszena zuzendaria, berriz, Valen Moñux. Euskara moldaketa, Miguel Moñux, Pello Txintxurreta eta Margareta Allgremek egin dute. Bergarako Orfeoia Cameron Mackintosh Ltd-en baimena lortu du eta baita Columbia etxearen Madrilgo delegazioarena ere. Hortaz, "Miserableak" muntaiarekin izan zituz-



ten arazoak ez dituzte oraingoan edukiko eta, baliteke ETBk eskaini ahal izatea, baina honi buruz ezin daiteke, oraingoz, ezer aurreratu.

Muntaian, Orfeoiko eta Orfeoi Txikiko kideez gain, Musika Eskolako hainbat musikaririk eta Ariznoa Gimnasia Erritmikoko kideek ere hartuko dute parte, besteak beste.

Bergarako Orfeoia ikuskizunari buruzko lau orrialdeko kazeta informatiboa kaleratu berri du "Oliver! Egunkaria" izenekoa eta egun hauetan banatu da herritarren, erakundeen eta komunikabideen artean. Muntaiaren estreinatu baino pare bat aste lehenago bigarren zenbakia kaleratu dute, orrialde gehiagoduna.



Rogelio Botanz eguakitzean Ipintza institutuan eskaini zuen kontzertuan.

## Rogelio Botanz kantari kanariarrak emanaldia eskaini zuen Ipintzan

**Legazpin** jaio eta azken urteotan Kanarietan bizi den Rogelio Botanz kantaria eta bere taldea Ipintza institutuan izan ziren joan zen eguakitze eguerdian. Aldiko behin musika emanaldiak eta beste era batzuetako kultur jarduerak antolatzen dituzte institutuan eta oraingoan abeslari kanariarrari

tokatu zitzaion. Rogelio Botanz-ek kanariar kultura eta euskalduna uztartzen ditu eta guancheen istorioak eta latinamerikako herrialdeetako idazleen hitzak kantatzen ditu. Institutuko areto nagusia bete egin zen eguakitzean eta ikasle eta irakasleek gustora eta harretaz jarraitu zuten emanaldia.

**Gallastegi**  
*Jostundegia*  
 Mahoizko lanerako jantziak  
 San Pedro ☎ 943 76 10 85

**GAR**  
**Sukaldeak.**  
**Horma armairuak.**  
**Neurrira egindako altzariak.**  
**Ateak eta leihoak.**  
**Arozlanak.**  
**BERGARA ☎ 943 76 58 86**

**KONDE**  
  
 Burdinate 1  
 ☎ 943 76 02 57



## BERGARA EZAGUTZEN LEHIAKETA

### Gaurko jardunaldian erabakiko da datorren asteko finala nortzuk jokatuko duten

**Txapelketako lehen final erdia jokatu zen joan zen eguakitzean eta gaur, eguena, jokatuko dute bestea Errastisklas eta Petu Petuan taldeek.**

Joan zen eguakitzekoan Hik Galdeu taldeak 260 puntu lortu zituen eta Eli-k, berriz, 165. Gaurko jardunaldia jokatu arte ezingo dugu jakin zeintzuk sailkatuko diren finalerako. Izan ere, bi final erdiak jokatu ostean, puntu gehien lortzen dituzten bi taldeak sailkatuko dira finalerako. Baliteke joan zen asteko bi taldeak sailkatzea edota gaurko biak izatea puntu gehien lortzen dituztenak. Beraz, final erdietako lau taldeetatik bi onenek jokatu dute finala. Gaur erabakiko da dena. Ikusi behar...

Joan zen asteko jardunaldiari dagokionez, Hik Galdeu taldearen nagusitasuna erabatekoa izan zen, hiru probetan irabazi baitzuen. Galderetan 195 puntu lortu zituen; Eli-k, berriz, 155. Proba grafikoan, bestalde, Hik Gal-

deu-k 45 puntu lortu zituen eta Eli-k, 10. Azkenik, kanpoko proban Hik Galdeu taldeak bakarrik asmatu zuen eta, ondorioz, jokoa zeuden 20 puntuak eskuratu zituen; Eli-k ez zuen punturik lortu.

Publikoaren artean zozketatutako kamiseta Jon Arzelusi egokitu zitzaion. Esan dezagun, gaurko jardunaldian Mireia Larrañaga izango dela aurkezlea.

#### SAILKAPEN NAGUSIA

- 2. Hik Galdeu ..... 260 puntu**  
**4. Eli ..... 165 puntu**

#### FINAL ERDIETAKO

#### BIGARREN JARDUNALDIA

**Errastisklas (2 HSOL, Aranzadi ikastola)**  
**Petu Petuan (DBH 4, Aranzadi ikastola)**



Gaur, Mireia Larrañagak Izaro Aperribai ordezkatuko du aurkezle lanetan.

#### erreseinak



Laura Mintegi  
**Ilusioaren ordaina**  
Ipuin bilduma

Laura Mintegik beste egile batzuekin batera argitaratuak ditu hainbat ipuin, baina hauxe da bere ipuin bilduma bakarra, orain arte kaleratu dituen liburuak nobelak baitira. Zazpi ipuin biltzen ditu liburuak, horietatik hiru 80ko hamarkadako lehen urteetan literatur lehiaketa ospetsuetan sarituak. Bilduma honetako ipuinek opera prima baten freskotasuna eta inuxentzia dute. Mintegik agerian uzten du ipuingintza modernoaren ezagutza. Horren kartografia egingo bagenu, Kafkak ez luke lekurik apartatuena beteko.

- Erein. 94 orr. 1.250 PTA



Oskorri  
**Oskorri & the pub  
ibiltaria 3**  
Herrikoia

Arrakastatsua bilakatu den formula eutsiz, pub ibiltariaren hirugarren zatiarekin datozkigu Oskorrikoak. Santo Tomaseko III. kontzertua jasotzen da bertan, iazko abenduaren 21ean Bilboko Areatzan zuzenean grabatua. Euskal kantutegi tradizionalako piezak errekuperatu eta zuzenean jasoak, Oskorrikoen zein ikusentzule anonimoen eskutik. Bi CD dira: lehenengoa, zuzenean erregistratua; bigarrena, estudioan, Gabon gauerako ETBrako grabatutako musika, ahots barik. Horretaz gain, kantuen hitzak eta partiturak jasotzen dituen esku-liburutxoa ere badakar.

- Elkarlanean. 2.500 PTA



# LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

## ARREGI

Eraikuntza  
materialak

Bildegia Tellerian, Labegarietan.  
Tf. 943 76 27 93



denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

**Ezker eskuma**

1. Maisuari dagokion trebetasun. 2. Santutegi batera erromerian doana. Lehenengoa. 3. Naukate. Tona. Kontsionante errepikatua. 4. Hareazko meta. Garai. 5. Idi, hitz elkarketan. Nire. Bokala. 6. Zelatan ibiltzen dena. 7. Areagotzeko partikula. Azkenekoa. Itxura. 8. Polit. Barazki mota. 9. Bizkaiko herria. Röntgen. Uharteak. 10. Erail. Ortze.

**Goitik behera**

1. Mendigoizaleak. 2. Araudiak. 3. Gipuzkozko hiria. Infin., lortu. Bokala. 4. Apaizen jantzia. Argi, hitz elkarketan. 5. Haur. Bi egun barru. Uranioa. 6. Infusio mota. Garra. Naizen hau. 7. Asto arra. Arazo hitzaren kontsonanteak. 8. Euskal atziki femeninoa. Ikur. 9. Bokala. Holmioa. Iparraldean, esna. 10. Gura. Zorro haundi.

**Soluzioa**

10. Nahia. Zaku.  
9. U. Ho. Atzar.  
7. Asarna. Rz. 8. Sa. Seinale.  
5. Ume. Ezt. U. 6. Te. Sua. Ni.  
3. Hun. Lor. A. 4. Sotana. Art.  
1. Mendizalea. 2. Arautegiak.  
Gotik behera  
Ea. R. hæk. 10. Akatu. Zeru.  
Ago. 2. Antz. 8. Lirain. Aza. 9.  
3. It. Neura. A. 6. Zelataria. 7.  
2. Neura. T. Hn. 4. Duna. Sasoi.  
1. Maisutasun. 2. Erromesa. A.  
Ezker eskuma

**bonofotoa**



Miguel Angel Elkorobereibar

**Zein da baserri honen izena?**

**galde debalde**

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!**

1. Gutxigorabehera zenbat argazki eman dizkio Roman Larrañagak Udalari?  
A- 4.000  
B- 5.000  
C- 6.000
2. Korrikaren zenbagarren edizioa da aurtengoa?  
A- 9.a  
B- 11.a  
C- 10.a
3. Zein izan zen iazko Gorlako Txirrundulari Igoerako irabazlea?  
A- Xabier Lazpiur  
B- Klaus Möller  
C- Juan Manuel Garate

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du BERRIGARAK. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Infernukua** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Alitxu Brunet**entzat izan da: Iraho jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Alitxuri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Errotalde jauregia eta San Joxepe** Galde Debalde: **1-B, 2-C, 3-C**

**BONOFOTOA**

**GALDE DEBALDE** 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

Izena-deitura: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!



Masterreka 23. Tf: 943 76 18 49



**Herrera de Sevilakoa, andaluziarra jaiotzez, Jose Joaquin Solis (61 urte) 23 urterekin Bergarara etorri zen eta garraio enpresetan aritu ondoren, taxiarekin hasi zen duela 21 urte. Ezkondua, Ermuan bizi da eta sei seme-alaba ditu.**

# Jose Joaquin Solis

**Zenbat kilometro urtean?**

Segun, baina 50-60.000 bitartean.

**Bidaiarik luzeena taxiarekin, nora?**

Portugalera.

**Zein kotxe daukazu?**

Fiat Tempira.

**Zure lehen kotxea gogoratzen duzu?**

Bai, Renault-12 bat.

**Zenbatean behin aldatzen duzu kotxea?**

Bost urtetik behin-edo...

**Kotxean gehien baloratzen duzuna?**

Kontsumoa.

**Mekanika kontuetan aditua zara?**

Bai, nire aita mekanikoa zen eta...

**Gidatze karneta lehendabizikoan atera zenuen?**

Bai, 18 urterekin.

**Trafiko seinale guztiak ezagutzen dituzu?**

Bai.

**Zenbat kobratzen duzue kilometroa taxian?**

58-61 pezeta bitartean.

**Lana, egunez ala gauetz nahiago?**

Gauetz hobeto.

**Laneko ordu hilletan, zer?**

Irakurtzen edo lotan bestela.

**Zure taxian nor eramatea gustatuko litzazuke?**

Inor ez bereziki.

**Tokatu zaizu inoiz taxirik hartu behar izatea?**

Bai, Donostian azkenengo aldiz.

**Hiri handi batean lan egingo zenuke?**

Ez, ez zaizkit hiriak gustatzen.

**Autoestopistarik jaso duzu taxiarekin?**

Ez daukat jendea hartzeko ohiturarik.

**Puntuatu inguruko errepideak.**

1etik 10era, 6 bat.

**Eibar-Gasteiz autopistaren aldekoa?**

Bai, horren beharra ikusten dut.

**Zenbatero garbitzen duzu kotxea?**

1a egunero.

**Kotxean, irratia ala musika?**

Irratia. Eta telebista txiki bat ere badaukat.

**Programa bat?**

Irratian Luis Del Olmoren programa eta telebistan pelikulak ditut gustoko.

**Zenbat zigarro erretzen duzu?**

Egunean bizpahiru purutxo.

**Superstizioso zara?**

Ez.

**Egunkarian irakurtzen duzun lehen gauza?**


Titularrak eta atzeko orrialdea.

**Irakurritako azken liburua?**

Miguel Angel Blancori buruzko bat. Nire seme-alabekin eskolan ibilitakoa zen.

**Zer egingo duzu Aste Santuan?**

Malagara joango naiz, nire alabetako batek semea izan behar du eta. **B**



## EDEL TAPIZDENDA

Etzerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

## Dietetika eta Nutrizioa Lorea Aramburu Doktorea

- Medikuntzan eta Kirurgian lizentziaduna.
- Bordeleko Unibertsitateak Dietetikan eta Nutrizioan diplomatua.
- Bordelkeko Unibertsitateak Kirol Medikuntzan diplomatua.

Tratatzen diren osasun arazoak:

- Kolesterola
- Azido urikoa
- Loditasuna
- Arteria hipertentsioa
- Diabetesa
- eta abar.

Ordutegia: Goizez eta arratsaldez

**INSTITUTO MÉDICO PALACIO MENDIA**

Erdiko kale 22, 1. • ARRASATE • Tf. 943 79 72 16

## Arantza Erlojutegia

Barrenkalea 4  
943 76 10 04

# Sugoi

**ERLOJUAK, ARTIKULO  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua 2 behea  
☎ 943 76 59 54 BERGARA





## Bergara-Michelin Atotxan. 1958

Hirugarren mailara igotzeko, Bergarak eta Michelin-ek 1958. urteko urtarrilaren 19an Atotxako zelaian jokatu zuten futbol partiduan aterako argazkia duzue goikoa. Bergarak 4-1 irabazi zuen eta, horrela, hirugarren mailara igotzea lortu zuen. Andres Alzelai zen entrenatzailea garai hartan eta sekulako taldea zuen Bergarak. Hirugarren mailan bost urte egon ondoren, 62-63 denboraldian preferentera jaitsi zen berriz ere.

C.D. Vergarak antolatutako autobusetan jende pila joan zen Donostiara partidua ikustera eta mailaz igotzea lortu eta gero Bergaran sekulako harrera egin zitzaion taldeari.

Honako hauek dira bertan agertzen diren bergararrak, elkarteko bisera eta guzti, ezkerretik eskumara: Bittor Ezkurra, Jose Mari Zubikarai, Jose Luis Kortabarría eta Andres Toledo.

*Argazkia: Jose Luis Kortabarría*

### ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituzu, zatoz!

**TOKI-ONA**  
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak  
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53



**umelaga**

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA  
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



**MEMESA**

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



# Gidari onenek

# OHOREZKO-MATRIKULA

## merezi dute

### Aldatu zaitez MAPFREra

### Azkartu



### itzazu zure bonifikazioak

Orain zure automobilaren aseguruia aldatzea **ez zaizu ezer kostako**.

Mapfrenen **Ohorezko Matrikula Planarekin**, oraingo polizaren antiguedadeari eutsiko diozu (95.1.1. baino lehenago edozein konpainiatan kontratatutako polizetarako baliagarria).

Lor ezazu **bonifikaziorik haundiena denborarik motzengan**.



## MAPFRE

Argibideak: Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.

# UGARTE

## AROSZTEGIA

### ALTZARIAK DEKORAZIOA

- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak



San Juan 1, (Barruti). BERGARA.  
Telefona eta faxa: 943 76 54 91



# JAKINA

Zeramika ulertzeko beste modu bat




Zure etxeko bainua berritu eta altzariak jarri aurretik, zatoz Jakinara.

**Diseinua, kalitate/prezio** erlazio bikaina eta **saldu osteko zerbitzu** ezin hobea eskaintzen dizugu.



**6** URTEKO  
GARANTIA



**Sukaldeko altzariak**

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak

San Lorentzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.

Telefona: 943 76 03 30. Faxe: 943 76 02 91.